

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2024-03-15 OSTIRALA / 898. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM

23. korrika



Itzulia Sakanara heltzeko gutxi falta da / 15

Sakanan 21 banku eta kutxa bulego daude, 978 sakandarreko bulego bana / 2-5

'Sorioneku!' Euskal Herriko 50 eskultoreen erakusketa lortian ikusgai dago / 21

1936an fusilatutako Antonio Larrañaga Goñi etxarriarren gorpuzkiak identifikatu dituzte / 9

SINADURAK



← Lautada

- 1155 **Ziordia** 04:30
- 1159 **Olatzagutia** 04:48
- 1163 **Altsasu** 05:14
- 1171 **Urdiain** 05:44
- 1176 **Iturmendi** 06:01
- 1179 **Bakaiku** 06:10
- 1183 **Etxarri Aranatz** 06:25
- 1191 **Lizarragabengoa** 07:03
- 1192 **Arbizu** 07:08
- 1194 **Lakuntza** 07:15
- 1198 **Arruazu** 07:33
- 1200 **Uharte Arakil** 07:43
- 1204 **Irañeta** 08:02
- 1207 **BELEIXE IRRATIA** (Sakana Mank-ek emanda) 08:16
- 1208 **Ihabar** 08:21
- 1210 **Hiriberri Arakil** 08:29
- 1212 **Satrustegi** 08:38
- 1213 **Zuhatzu** 08:43
- 1215 **Ekai** 08:53
- 1216 **Etxarren** 08:58
- 1218 **Etxeberri** 09:08
- 1219 **Irurtzun** 09:13
- 1225 **GUAIXE FUNDAZIOA** 09:43

← Latasa

Bankuak, joerak eta ondorioak

Kopuru handiena 2008an lortu ondoren, banku eta kutxen bulegoen kopuruak behera egiteko prozesua urte hartan hasi zen. Euskal Autonomia Erkidegoan sarearen %51 galdu du (1.034 bulego gutxiago), Nafarroan %44 (317 bulego gutxiago)

Alfredo Alvaro Igoa URDIAIN

Urtez urte, Kutxa eta banketxe bulego gutxiago dago Hego Euskal Herrian. Joera orokorra da, baina neurri ezberdinean leku batetik bestera. Joera da esku-dirua gero eta gutxiago erabiltzea, eta ordainketa terminalen (datafonoa) kopurua urte urte handitzen doa. Bulegoen gutxitzeak zerbitzuen murrizketa ekarri du leku askotan ere, eta ingurune birtuala garatu da. Urdiainen CaixaBanken bulegoa ixtear egon zen duela lau zapabost urte. Bizitakoaren ondoren, herrian banku zerbitzua izatearen inguruan galdezka joan gara.

Urdiaingo jubilatu elkartearen Ameli Irigoien Etxabarrrik, Mari Angeles Garzandia Goñik eta Ana Isabel Zufiaurre Albizturrek hartu gaituzte, zuzendaritzako kideak. Hirurak kutxazainetik dirua ateratzen moldatzen dira. Irigoienek esan duenez, "kutxazainean dirua sartzen orain ikasi dugu. Ikasten ari gara". Zufiaurrek gaineratu duenez, "transferentzia edo egiteko beste zerbaitek badugu, orduan bai, barrura. Orain dagoen nesakiarekin oso ongi gabilta". Garzandiak ziurtatu duenez, "zerbaite baldin badut, berak dena konpontzen dit. Gauza handia da. Bestela, txartela kutxazain gainean jartzea eta horrekin dirua ateratzea, hori niretako errazena da. Baina orain ikasi dut". Irigoienek jakinarazi duenez, "ikusmen arazoak ditut eta laguntza behar dut. Bulegoko

nesakiarekin oso ondo moldatzen naiz. Niretako urrea da bulegoa egotea".

Herriko hiru zerbitzura ere jo dugu iritzi eske. Javier Lopez de Goikoetxea Ollokiegi harategiko jabea da. Jakinarazi duenez, "guk gehien-gehiena diru xehea, kanbioak, eskuratzeko da. Eta dendarako behar ditugun gauzak. Hemen gehiena diru xehea da. Apika jendea etortzen da ogi bat eske 50 eurokoarekin. Atera kontua zer aldaketa egin behar den hor. Gaur egun bankuko kontuak asko berritu dira, eta lan egiteko beste modu bat daukate. Gehiena etxetik egiten dugu". Karmen Lopez de Goikoetxea Goikoetxeak ile apaindegia du eta, aitortu duenez, "diru xehe asko behar du, niretako hori da makurrena". Bar-

bara eta Manuel Perez Diez-Canseco tabernako nagusiak dira. Zabaldutuzenetik dira bezeroak eta, "funtsean, tramiteak egitera" joaten dira bulegora, kanbioak eskatzera, diru sarrerak egitera... "Gehien erabiltzen duguna kutxazaina da", aitortu dute. Harakinak azaldu duenez, "bankuan edozer gauzogatik kobratzen dute. Transferentziak etxetik egiten badituzu ere kobratu egiten dute. Beti dago hor ehuneko txiki bat kentzen dutena. Baina beti daude moduak ez kobratzeko eta beti ibiltzen gara muxinkuen, eztabaidatzen".

David Oroz Alonso alkateak esan duenez, "udal kontuengatik aldiro-aldiro joaten naiz tramiteak egitera". Gaineratu duenez, "mugimendua badago. Ez bakarrik urdindarrak, ingurukoak ere etortzen dira. Batez ere Iturmendi eta Bakaikukoak. Altsasuarrak ere ikusten dira. Altsasuko bulegoa nahiko saturatuta egoten omen da eta jendea hona etortzen da".

Ordutegia

Bulegoa astearte eta ostegunetan 09:00etatik 12:00etara egoten da zabalik. "Guretako ordutegi ona da", esan dute jubilatu elkarteko kideek. Ile apaintzaileak esan duenez, "beti diru xehe gabe gelditzen naiz ostiraletan, Orduan dena itxita dago. Beti kanbioak eskatzen. Edo zorretan uzten dute, eta halakoak". Bestela, berak "normalean egin beharrekoak

kutxazainean egiten" ditu, "barrura sartzeko arazo handirik ez baitut. Dirua sartu, atera, transferentziak edo dena delakoa. Erosoa da, nahi dudanean joaten naiz, ez dut ordutegirik".

Tabernariak esan dutenez, "ordutegia pixka bat mugatua da. Baina astearte ederki dator-kigu, jai eguna dugu eta kudeaketak egiteko bali dezakegula. Baina, egia esan, herriari begira ordutegi pixka bat mugatua da. Edo premia duzunean. Diru xeherik gabe gelditu, edo ostegunetan joatea pasatzen bazaizu, Altsasura, Etxarrira, Arbizura edo edonora joan beharra duzu".

Harakinak gogoratu du "lehenago egunero zabalik egoten" zela. "Hura martxa ona zen herriarrendako, guretako, denondako. Gero, uste dut, Caja Navarrratik CaixaBankera aldatu zen, eta orduan gauzak estutzen hasi ziren. Orain astean bi egunetan zabalitzen dute. Hori guretako faena latza da. Itxita dagoen egunetan denda diru xehea behar badugu jendeari kobratzeko, Altsasura joan beharko dut. Eta Altsasura joanez gero, beste eskaintza batzuk dauzkagu". Harakinak berak gaineratu duenez, "eskerrak kutxazaina dagoela. Ordutik kanpo, bulegoa itxita dagoela, gauza hona da hori mar-txan ibiltzea; dirua sartzeko edo ateratzeko".

Anai-arrebek gaineratu dutenez, "ordutegi murriztua duenez, gero eta jende gutxiago joaten dela ikusten dugu. Lehen aste-lehenetik ostiralera zabalitzen zuenean, jende gehiagok erabiltzen zuen bulegoa. Orain 09:00etatik 12:00etara dago. Jendea beste norabait joaten da, apenas etortzen da jendea". Langileari galdetu izan diote tabernariak: "gero eta jende gutxiago joaten dela erantzuten du. Ordutegi murriztua izatean, jendea bera mugatu egiten da: 'horretarako, beste norabait joanen naiz'. Bulegoa beti zabalik ez dagoenez, beste toki batera joateko ohitura hartzen duzu".

Ordainketa moduak

Ikerketen arabera, pertsonen erdiak baino gehiagok "eskudirutan" ordaintzen du pagatu beharrekoa. Ordainbiderik erabiltzen da, batez ere 55 urtetik gorakoaren artean. 25-39 eta 40-54 urteko pertsonen erabiltzen dituzte gehien txartelak. Eta zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago erabiltzen da mugikorra eta txartela. Bestalde, ordaintzeko terminalak (datafonoak) hirukoiztu egin dira bi hamarkadetan. Joera horiek baieztatu dizkigute harakinak, ile apaintzaileak eta tabernariak. Azken horiek ohitura aldaketa hori berretsi dute: "gero eta gehiago telefonoarekin edo txartelarekin ordaintzen da, mugimenduak handitu egin dira. Pandemiaren geroztik askoz ere gehiago. Batez ere gazteak dira hala ordaintzen dutenak, helduek oraindik eusten diote; haiendako dirua da garrantzitsua".

Ile apaintzaileak azaldu duenez, "hemen 35 urte daramatzat, beti datafonoa jartzekotan, eta ez dut jarri. Bi urte daramatzat jende pila Bizum bidez ordaintzen duena. Oso eroso da. Gazteak ordaintzen dute horrela. Helduek ez, beti diruarekin". Harakinak dioenez, "azkenean jendea bizi berrira moldatu beharko da. Arazoa jende jarriarekin dago. Jende jarriak txartelarekin ordain-



"HERRI BATI ZERBITZUA EMAN BEHAR ZAIO; HOR DAUKAGU DIRUAK" AMELI, MARI ANGELES ETA ANA ISABEL



"HERRI TXIKIOK HALAKO ZERBITZUAK DEFENDATU BEHAR DITUGU, HERRIETAN EDUKI BEHAR DITUGU" DAVID OROZ



www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





Emakumezkoa eta gizonezkoa Urdiaingo banku bulegoan sartzeaz.

tzeko arazoak dauzka, eta hari gustatzen zaio dirua ibiltzea. Jakina, banku bulegoa bi egun zabalik izanik, jende jarriak kristoren arazoa dauka". Jubilatukoak diruaz aparte, txartela eta libretarekin egiten ditu ordainketak. Irigoienek esan duenez, "batzuetan pin-arekin gaizki ibiltzen naiz, baina bulegoko langileak esan zidan nola egin, eta kitto".

Tabernariak gogoratu dute datafonoagatik hileru ordaindu beharra dutela. "Tabernan estaldura onik ez dugunez datafonoz aldatu dugu eta wifidun bat jarri digute. Espero ez genuen aparteko gastu bat izan da. Telefono linearen estaldura eta Urdiainen, dagoena da". Harakinak azaldu duenez, "lehenago ez zegoen zuntz optikorik, eta seinalea hona ez zen ailegatzen. Orain, bai zuntza jarrita daukagu eta, dagoeneko, arazorik ez dugu".

Bulegoa ixtear

Bulego sarearen galera orokortua da European. Espainiak (-%61) eta Danimarkak (-%60) izan dute galerarik handiena. Frantziak, txikiena (-%13). Sakanan 2015az geroztik bi bulego gutxiago dau-

de. Eta Urdiainen banku bulegoa ixtear egon zen. "Azken urtetan bankuen politika hori izaten ari da: gero eta bulego gutxiago, jendea kaleratu, bulegoak itxi. Joera da dena Internet eta ordenagailu bidez egitea, eta aurrez aurreko arreta gero eta gutxiago eskaintzea. Politika horren barruko erabakia zen", azaldu du alkateak.

Orozek gogoratu duenez, "gugana etorri ziren salduduz bulegoa itxi baina kutzazain miragarri bat jarriko zutela esanez. Haren



"GAUZA BAT KENDU, BESTEA KENDU, HERRIAK HORRELA GALTZEN DIRA"

JAVIER L. DE GOIKOETXEA

bidez eragiketa guztiak egiteko aukera izanenu genuke. Udalak hasieratik esan zien hori ez zitzaioa nahikoa iruditzen. Arreta pertsonala gauza askotarako behar dela, eta ezinbestekoa ikusten genuela". Jubilatukoak Garziandiak azaldu duenez, urdindar batzuk, ez denek, bulegoaren itxieraren berri ematen zuten gutuna jaso zuten.

Alkateak azaldu duenez, "al-bistea herrian zabaltzen hasi zenean, jendea aktibatu zen. Jendeak kezka bizi izan zuten albistea, eta mugitzen hasi zen". Jubilatukoak Irigoienek esan duenez, "oso txarki iruditu zitzaigun. Jendea hasi zen esaten dirua bankutik atera behar zuela, herritik kentzen bazuten jende jarriak zer egin behar zuten, eta gauza bat eta bestea".

Udaletxean informazio batzarrak egin zuten. "Eta jendartetik sinadura bilketa egiteko ideia atera zen, horren bidez urdindarren ezinegona eta kezka adierazteko. Jendearen ekimenez egin zen sinadura bilketa eta ehunka bildu ziren". Irigoienek gogoan du "jendeak arazoak eman genituen". Garziandiak

gaineratu duenez, "orduan hasi ginen denak mobilizatzen, manifestazioa antolatzen eta normalean egiten diren gauza horiek. Udaletxe aurrean egoten ginen".

Orozek azaldu duenez, "Caixabankeko arduradunekin bigarren bilerara joan ginen eta sinadura haiek momentu hartan eragina izan zuten. Haiek arazoaren tamaina edo urdindarren pertzepzioa ikusi zuten. Bulegorik ez balego, jendea bere diruaren jabe denez, egin beharrekoa egiteko prest zegoen. Horren ondorioz,



"GURASOEN GAUZAK EGITEN HASI NINTZEN, IXTEN HASI ZIRELAKO, ORDUTEGIAGATIK..."

KARMEN L. DE GOIKOETXEA

beste planteamendu batekin etorri ziren. Gaur egun astean bitan irekita dago bulegoa". Jubilatukoak kideek esan dutenez, "azkenean, gelditzea lortu genuen, eta ondo. Zerbitzua herrian mantendu da".

Garai hura gogoan, alkateak esan duenez, "Urdiain herri txikia da, baina denetarik dugu; denda txukuna dago, taberna, medikua... eta banketxe bulegoa ere badago. Beharbada hori izan zen punta: 'hau galtzen hasten bagara, beste zer baiten hasiera izan daiteke'. Halako sentimendua zegoen momentu horretan: beharrezko zerbitzu baten galera. Herri txikiak, jakina, aireportu bat ez dugu eskatuko, baina herrietan gutxieneko zerbitzuak egon behar dira.

Bulegorik ez balego

Sakanan bertan badira banku bulego edo kutzazainik ez duten zazpi udalerrri: Arakil, Irañeta, Arruazu, Ergoiena, Bakaiku, Iturmendi eta Ziordia. Hipotesi horren aurrean jarri ditugu urdindarrak, banku bulegorik ez izatea. Guztiak jende jarriari, adinekoei, erreparatu diete.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »

« AURREKO ORRIAN HASI DA

Jubilatu elkarteko Zufiaurrek esan duenez, "Arazo handia luke. Zer egin beharko lukete, aldamenekoari edo familiakori diru bila joateko esan? Altsasun dirua ateratzeko?" Irigoienek gaineratu du: "oso jarriak badira, ez dira autobusean moldatzen. Hemen konfiantzarekin joaten dira bulegora, etxera bezala. Desberdina da". Zufiaurrek esan du beraiek autoa badutela eta Altsasura joaten direla. "Baina ez daukanak, arazo ikaragarria da herri txiki batendako; ez daukate dirua ateratzeko modurik. Irigoien eta Garziandiarendako bulegorik ez egotea "arazo bat litzateke, Altsasura joan beharko ginateke. Eta hara joateko beti ez duzu autorik. Arazoa da, bai".

Ile apaintzailek esan duenez, "niretako kalte handirik ez zen izanen. Autoa dut, mugikorra-ekin eta guztiarekin moldatzen gara. Altsasura joatea ez da ezer kosta. Baina helduak beste kontu bat da. Ni nire gurasoen gauzak egiten hasi nintzen, ixten hasi zirelako, kutzazaina, ordutegia..."

Harakinak, berriz "diru xehearen bila Altsasura joan beharko nuke. Dagoeneko egun askotan Altsasura joaten gara. Urdindarrak ere gauza bera eginen lukete. Beti egon da eta halako herrietan pena ematen du halako zerbitzuak galtzea. Azkenean, gauza bat kendu, bestea kendu, herriak horrela joaten dira galtzen". Eta jakinarazi duenez, "bere garaian kutzako bat etorri zitzaidan galdetza zer iruditzen zitzaidan bulegoa ixtea eta egun batzuetan zabalik izatea. Egia esan nion: 'Urdiaindik Altsasura, Irurtzuna edo Iruñera joateko autoa hartzen badut, beste gauza batzuetarako bezala, beste bulego batzuk ditut'. Erabat ixten badute, haiekin lan egiteari utziko dio jende askok, eta beste entitate batekin hasiko da. Espero dut bulegoak zabalik segitzea. Ea lortzen dugun bi egun baino gehiagotan zabaltzea".

Orozek esan duenez, "herri txikiok halako zerbitzuak defendatu behar ditugu, herrietan eduki behar ditugu. Banketxeen irabaziak ikusten ditugunean, azkenean gure diruarekin zer diru irabazten duten, ez da asko eskatzea herri txikiak zaintzea. Herri txikiak ere garrantzitsuak dira".



Emakumezkoa Irurtzungo kutzazain baten aldamenetik pasatzen.

Bulegoak segitzen du

Nafarroako udalerrien %54k (272tik 147) ez du banku-bulegorik, baina biztanleriaren %6,7 da. Sakandarren %13,46 ez du udalerrian halako zerbitzurik. Ile apaintzaileak ziurtatu duenez, "bulegoa egotea herria bizirik mantentzeko modua da. Dendak-eta ixten badituzte, askoz ere makurragoa da. Herrian gauza bat gutxiago dago herrian, bizi gutxiagoa". Jubilatu elkarteko Zufiaurrek esan duenez, "bulegoa dagoela baloratu behar da, eta erabili ere bai. Beraiek esaten dutenez, gazteek, eta guk ere, gutxi erabiltzen dugula bulegoa, kutzazainera joan dirua atera eta aurrera". Baina, gaineratu du: "herri bati zerbitzua eman behar zaio. Jendeak hori ditu bere diruak". Garziandiak bulegoak ematen duen "laguntasuna" nabarmendu du, "edozer

gauza egiteko behar dugu". Zufiaurrek gaineratu duenez, "nesakia oso atsegina da. Gauza asko errazten dizkizu, guri eta elkarteari, eta jendea gustura joaten da. Jendea ez da beldurrez

joaten, konfiantzarekin baizik. Jende jarria ere konfiantza joaten da". Irigoienek argitu duenez, "Altsasun jende pila bat dago. Jende jarria nahastu eta urduri jartzen da, desberdina da. Nahiz eta txikia izan haiendako oso gertukoa da herriko bulegoa".

Profesionalek ere gertuko harreman hori ere baloratzen dute. Tabernariak azaldu dutenez, "azken aldian pertsona bera dago lanean, hori ona da, elkar ezagutza dago. Pertsona ezagutzen duzu, tratua duzu, hurbiltasuna eta hizketatzeko erraztasuna. Ezagutzen duzu, gosaltzera etortzen zen... Edozein kudeaketa egiteko ona da hori. Bulegoa bulego gisa zegoenean, joan eta han zegoen. Orain Urdiainen leihatila zerbitzua du, beste kontsulta mota batzuetarako Altsasura joan behar duzu". Ile apain-



"BETI ZABALIK EZ DAGOENEZ, BESTE TOKI BATERA JOATEKO OHITURA HARTZEN DUZU"
BARBARA ETA MANUEL

tzaileak ziurtatu duenez, dagoen langileak konfiantza handia ematen dio: "Urdiainen egoten den langilearekin Altsasuko bulegoan berarekin egon naiz. Arazoren bat ibili dudanean, kasualitatez, berarekin tokatu zait. Eta ongi.

Harakinak azaldu duenez, garai bateko langilea, "Patxi, oso ezaguna zen hemen eta jendearekin harreman ona izaten zuen. Eta kristoren konfiantza ematen zuen beti pertsona ezaguna ibiltzea". Gaineratu duenez, "aspaldi honetan nesaki bat dago. Baina hasieran joaten zinen aldiro pertsona berri bat zegoen". Orain inbertsio edo diru konturen batekin bulegora joenez gero "zuzendariarekin edo besteren batekin hitz egin behar duzula esaten dizute".

Jubilatu elkarteko Irigoienek eta Garziandiak jakinarazi dutenez, iturmendiarrak eta baikaikurrak ere Urdiaingo banku bulegora joaten dira. "Eta gelditzen dira. Batzuk joaten dira tabernara, besteak harategira erosketak egitera. Beti-beti mugitzen da jendea". Tabernariak berretsi dute aldameneko herrietako "batzuk" joaten zaizkiela, "zerbait nabari da, baina oso gutxi. Baina bulegoa egoteak mugimendua egotea sustatzen du". Ile apaintzaileak azaldu duenez, "noizbehinka etortzen dira. Lehen bai, baina orain herri guztietan ile apaindegiak daudenez, ez hainbeste". Zufiaurrek gehitu duenez, "horiek denak herriari bizia ematen diote, eta hori da herri txiki batek behar duena: bizia, zerbitzuak eta jendea.

Orozek "ez du ikusten" herria banku bulegorik gabe gelditzea. "Argi eta garbi, herri txikietan gero eta zerbitzu gutxiago izateak indartzen du nukleo batzuk gero eta handiagoak izatea. Urdiain txikia da. Baina Sakanako edozein herri txikia izan daiteke. Ezin dugu gure burua engainatu. Sakanak osoa 20.000 herritar gara. Iruñeko auzo txikiak biztanle gehiago ditu. Zerbitzu guztiak Iruñean zentralizatuko ditugu? Ondoren despulazioaz eta horri buelta emateko politikez hitz eginen dugu. Oro har, Sakanak ez da despulazio arriskuan dagoen eskualdea, Urdiain esaterako. Baina zerbitzuak galtzen baditugu, jendeak, nabarmen, zerbitzuak dauden tokietara joko du", esan du alkateak.

Laburpen orokorra datuetan



Bulego kopurua
15 urtean, Hego Euskal Herriak banku bulegoen ia erdia galdu du. Irurtzunen bi bulego itxi dituzte.



Entitateak
Sakanan dauden bulegoen ia 3/4 hiru entitatek betetzen dute: Caixabank, Laboral Kutxa eta Rural Kutxa.




Kutzazainak
2006tik 2022ra, kopurua % 22 inguru murriztu da Estatuan. Hirukoa izan da Sakanako galera.

Eskudirua gero eta gutxiago erabiltzen da, eta ordainketa terminalen (datafonia) hazkundera izan da urtez urte.


Herriz herri, zein da egoera?

Sakanako herrien %72,41k (29tik 21) ez du banku bulegorik, baina biztanleriaren %13,25 da.



Zenbat kilometro egin behar dute sakandarrek banketxe batera iristeko?

Sakanako herritarrek batz besteko 2,8 km egin behar dituzte dirua atera ahal izateko. Arakilen aldiz, 4,2 km-koa da mugitu behar diren batz besteko kilometro kopurua.



Mondragon Unibertsitatea
Goi Eskola Politeknikoa

ATE IREKIAK

GOIERRI CAMPUSA

ORDIZIA

Ingeniaritza Mekanikoko Gradua

Martxoak 20, 11:00

EMAN IZENA!

www.mondragon.edu/ate-irekiak



ASTEKOA

ANDREA CARRILLO JUANBELTZ

Emakumeon borroka

Ni emakume bat naiz. Hazi ahala, honen parte izatearen esanahiaz jabetu naiz. Eta hura deskubritu nuenetik, bertatik nola ihes egin nuen konturatu naiz, emakume izatetik, neuregandik. Egia esatekotan, eraikitako mundu honetan ez gara oso urrutira iristen, emakume gisa. Arauak, besteek egindako lekua, non derrigorrez sartu behar duzun. Horixe bera norbera izateko neurria izanda, gainontzekook bizirik irauteko aplikatu duguna. Sexu arauak, harreman arauak, arrakasta arauak, gorputz estandarrek, bizitza estandarrek. Ihesbiderik ez.

Leku hori utzi nahian, ordea, alde batera uzten duzu zeure burua; emakume izateari uzten diozu, gainerakoek definitzen baitzaitezte. Beraz, besteekin konparatu, lehiatu, bereizten zara, leku baten bila. Horrek, era berean, zeuretik eta guztietatik bereiziz eta urrunduz, emakume izate hori garaitzeko. Ez dut gogoko neure buruaren aurka borrokatu behar dudana mundu bat. Horretan aritzea besteak etsai

bihurtzea da.

NI NEU IZATEKO ASKATASUNEAN, BESTEEI ERE ASKATASUNEZ ERAKUSTEKO AUKERA EMANEZ

Ez dut mugarik nahi, arauak desagerrarazi nahi ditut. Ukitu gaitezen behingoz. Borrokaren batasunean sinetsi izan dut beti. Gure artean maiteminduz. Ni neu izateko askatasunean, besteei ere askatasunez

erakusteko aukera emanez. Borroka batasuna izan dadila; besarkada bat.

Emakume izatea aberasgarri bezain anitza da. Emakume sentitu ala bulba ez izan arren, zer arraio! Kanpoan nor geratzen den ez dut nik esango. Ezin baitut partekatutako guztiok entzuten ez ala zatika defendatzen gaituen borroka. Ezabatu ditzagun mugak. Alda ditzagun arauak. Zuk beti izango duzu lekua nire borrokan.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zerbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

"Gu guuya, eta tira millas... etxeraino!"

SAKANAKO SARE

Hiru urte... Hiru urte pasa dira, bai. Pasa dira, eta ez zaigu ahaztu; ez dugu Fran ahaztu. Oraindik hutsunea betetzea zaila. Hain handia zen ematen zuen itzala, babesa, konpromisoa, laguntasuna edo eta maitasuna... ze, hutsune horiek betetzeko motz diren bat, bi, edo eta hiru urte. Badakigu. Nekez uzten du eta herria, herria egin duenak...

Baina... bat, bi, hiru urte hauetan aurrera egin dugu preso, iheslari eta

deportatuen etxerako bidean. Orduan genion garaia zela espetxeak hustutzeko, eta aukerak bazeudela horretarako. Eztabaida antzuetan denbora galtzeak ez zuela merezi, eta guk... gurera jo behar genuela... "Gu guuya, eta tira millas!". Txor txor baina bide eta helburu argiekin.

Bat, bi, hiru urte... Ez diogu oraindik konponbide oso bat eman preso, iheslari eta deportatuen aferari. Bai aurreratu, asko aurreratu

dugu. Eguneroko ahalegina, eremu guztietan, hori da gakoa. Isolamenduarekin bukatu genuen lehenik, gero urrunketarekin. Ari gara espetxean dauden herrikideen etxerako bidean buru belarri. Gertuago gaude, eta azken aldapa da falta zaiguna. Amaituko dugu salbuespenarekin eta ekarriko ditugu behingoz etxera.

Bidean geratu diren herritar nekazekin horiek gogoan, segi dezagun lanean.

Fran Balda, beti gogoan!

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Udaberriko oporren aurreko zerbakia, martxoaren 27koa, berezia izanen da. Hori dela eta, ez da ez gutunik, ez agendarik, ez eskelarik, ezta iragarki laburrik ere argitaratuko. Oporren aurretik halakoak argitaratzeko azken zerbakia martxoaren 22koa izanen da. Gogoan izan horiek jasotzeko azken eguna hilaren 20a izanen dela, 10:00etaraino bidal daitezke. Eskelak, berriz, martxoaren 21eko 11:00etaraino hartuko ditugu. Ondoren jasoko ditugun jakinarazpenak www.guaixe.eus webgunean argitaratuko ditugu.

MARTXOAREN 19AN 04:30ETIK AURRERA

JARRAITU KORRIKA SAKANAN ZUZENEAN!

WWW.GUAIXE.EUS BELEIXE IRRATIAN

guaixe fundazioa

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabera
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maider Gabirondo Zelaia

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

ESKOLATZEA **Euskaratik elkarrekin eleanitz**

ESCOLARIZACIÓN **En euskera, en comunidad y multilingüe**

УЧИЛИЩНО ОБУЧЕНИЕ **На баски, в общността и многоезичен**

ESCOLARIZAÇÃO **Em euskera, em comunidade e multilingue**

التسجيل في المدارس العمومية **باللغة الباسكية في المجتمع و بلغات متعددة**

ANUL ȘCOLAR **În limba bască, în comunitate și multilingvism**

SCOLARISATION **En euskera, en communauté et multilingue**

SCHOOLING **In Basque, in the community and multilingual**



Antolatzaileak / Organizan

Udalak / Ayuntamientos: Agoitz / Aoiz, Antsoain / Ansoáin, Aranguren Ibarra / Valle de Aranguren, Atarabia / Villava, Berriobeiti / Berrioplano, Berriozar, Burlata / Burlada, Eguesibar / Valle de Egúés, Esteribar, Galarko Zendea / Cendea de Galar, Gares / Puente la Reina, Orkoien, Uhartea / Huarte, Zizur Nagusia / Zizur Mayor **Mankomunitateak / Mancomunidades:** Irantzu / Iranzu, Izarbeibar / Valdizarbe, Sakana

"Tramitazio guztia berriro hasi beharko lukete"

AMAIA ERDOZIA ANSO AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZ! PLATAFORMAKO KIDEA
Goi tentsioko hiru linea proiektuen garapenean "fase transzendentalean" gaudela gaztigatu dute plataformatik

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA
Red Electrica Españolaren (REE) 400 kW-eko linea eta Forestalia enpresaren beste 2 lineen proiektuek administrazio baimenak jaso ondoren, haiei helegiteak aurkeztuko dizkiete.

Bi linea daude ibarrean.

REEko proiektua atzera botatzeko ahaleginetan ibili ondoren,

egun Sakanan dauden 220 kW-eko bi lineak kentzea lortu zen 2019an. Baina, bat-batean, REEren 400kW-eko linea horretaz aparte Forestaliaren beste bi linea proiektuak (Kyoko eta Ume edo Tebe) etorri ziren. Halako proiektu txikitzaileak bateraezinak direlako landa eremuko garapen eta etorkizunarekin.

Zergatik egin nahi dituzte?

REEk Castejondik Itsasora eramanen du argindarra. Forestaliarenak Zaragozako Cinco Villasko makro proiektuetatik argindarra Gasteizeraino eta Bizkairaino eramanen dituzte, eta handik Frantzian saltzeko.

Plataforman zer duzue esateko?

Udazkenean oso-oso ezohiko ingurumen baimenak jaso zituzten: eskatzen zien Forestaliaren eta REEren lineak dorre beretik joatea. Hori, orain arte, inoiz ikusi gabea zen, oso ezohikoa eta, gainera, harrigarria eta kezka asko sortzen dituena. Teknikoki ere ez baitute azaldu hori posible den, edo nola egin beharko luketen. Baimena jaso bai, baina dena airean gelditu zen. Udalek aurkeztutako helegiteak aintzat hartu zituztelako ingurumen baimenean aldaketa handi horiek eginarazi dizkiete.

Orain baimen berriak iritsi dira.

Industria Ministerioak Forestaliako bi proiektuei eraikitzen hasteko aurre baimenak eman dizkie. REErena ere aurki iritsiko da. Azken horrek erabilera publikoko aitortza jasotzeko aukera du ere. Baimen horiek jasotzean, badirudi lanean has daitezkeela. Lehendabiziko pausoak ematen hasiko dira. Baina udalen arabera, badira helegitea jartzeko hainbat arrazoi.

Zein?

Ingurumen baimena jasotzeko jarri izan dizkieten baldintzak erabat aldatu dute hasierako proiektua. Enpresek egin beharko luketena ez daukagu oso argi nola egingo duten. Eta hori hasieran aurkeztu zen proiektuaren guztiz bestelakoa da. Beraz, ikerketa eta ingurumen txosten berriak egin beharko lirakeke. Eman duten aukera berri horren tramitazio guztia berriro hasi beharko lukete.

Arrazoi gehiago badituzue?

Ingurumen inpaktuari buruzko txostena ez zegoen behar bezala



Plataformako kideak. Erdozia, eskuinetik hasita bosgarrena. UTZITAKOIA

osatuta, eskatzen diren eduki guztiak ez zituen. Aurreko bi arrazoiak kontuan izanik, herritarrek eta proiektuak kaltetutako udal eta kontzejuek ez dute behar bezalako parte hartze eta informazio eskubiderik izan. Azkenik, lege iruzur bat egon da. Forestaliaren lineak ebakua-ziokoak izan beharko lirakeke. Baina, benetan, energia garraiatzeko lineak dira. Batak eta besteak tramitazio desberdina dute, eta horren kontra ere egiten du. **Industria Ministerioaren aurre baimenei ere helegiteak?**

Forestaliaren Kyoko proiektuari helegiteak ilbeltzean aurkeztu zizkieten. Tebe egitasmoari oraintxe ari dira horretan. Eta REErenari aurkeztu bezain pronto hasiko gara helegiteak aurkezten. **Aurre baimenekin eraikitzeko bidea zabaldu da?**

Forestaliaren lineendako aurre baimenek ez die oraindik lanean hasteko modurik ematen. Beste tramitazio batzuk jarraitu beharko dituzte. REE izanen da lanak hasteko aukera izanen duena, nolabait, beste baimen guztiak batera jasoko baititu. Hori aurreikusten ari gara. Dagoeneko REEkoak Etxarri Aranatzen eta Bakaikun mugimendu batzuk egiten hasi direla. Hainbat lur sailen jabeengana joan dira. Haien dorreak jartzeko edo argindar hariak beren lurretatik pasatu behar

"EMAN DIZKIETEN INGURUMEN BAIMENAK OSO-OSO EZOHIOAK DIRA, INOIZ IKUSI GABEAK"

dituztelako, dagoeneko kontratuak eskaintzen hasi dira.

Horren aurrean, zer?

Jendeari eskatu diogu ez larritzeko, ez sinatzeko eta informazioa eskuratzeko. Ikusi behar dugu nolako baldintzak eskaintzen ari diren. Eta helegiteak jarriko ditugu, lanketa juridiko eta administratiboak aurrera jarraitzen baitu. Administrazio bidea ez da bukatu: hor daude egindako tramite eta helegite guztiak. Oraindik REEren baimena ez da publikoa, eta lortzen duenean bere proiektuari helegiteak jarriko dizkiogu.

Nafarroako Gobernuak zer dio?

Landa Garapen eta Ingurumen kontseilariarekin bilera egin genuen otsailaren 27an. Esan zuen Forestaliaren proiektuen kontra egingo dutela eta helegiteak dagoeneko aurkeztu dituztela. Baina REEren proiektua ongi ikusten dute, ez diote helegiterik jarriko. Hala ere, plataforma hobekuntzak egiteko aukerak ikusten dituen puntuak, REEri helaraziko ziela esan zigun.

Helegiteak erantzun bitartean, zer?

Plataforman oso argi dugu bide legalatik bakarrik ezin zaiela aurre egin horrelako mehatxu txikitzaileei. Horregatik, informazio, kontzientziazio eta mobilizazio kanpaina bat abiaraziko dugu martxoaren 23an: *Alarma gorria, no líneas de alta tensión*. Kaltetutako udalerrietako plaza guztietan elkarretaratzeak egin nahi ditugu. Apirilaren informazio batzarrak egingo ditugu, mapak argitaratu eta, bukatzeko, apirilaren 27an, Iruñeko Gaztelu enparantzan, kultur elkarretaratze aldarrikatzaile berritzailea egin nahi dugu.



Larrañagaren iloba Mari Carmen (ezkerrean) eta biloba Alicia (eskuinean), Esteparreko hilerrian. UTZITAKOA

Etxarriar baten gorpuzkia Burgosko hobi batean opatu dute

Burgosko kartzelatik fusilatzen atera zuten Antonio Larrañaga Goñi etxarriarra. Estepar herriko mendian fusilatu zuten beste 26 pertsonekin batera. Mendi berean beste hiru hobi induskatu dituzte eta 90 gorpuzki atera dituzte

ETXARRI ARANATZ

"Ofizio txarra hartu duzu!" esan zion Antonino Imazek. "Ofizioa ez da txarra, lan egiten utziko balute!" erantzun zion Antonio Larrañaga Goñik, Katxok. Bi etxarriarrek, aldamenak, trenean bat egin zuten, baina Larrañagak eskuburdirak jarrita zituen eta aldeetan guardia zibil bana. Gertakaria hala jasoa du Rafael Carasatorre Vidaurrek *Etxarri Aranatz 1900-1940* liburuan. Han lapurra zela azaltzen da, baita epai baten berri eman ere. Herrian ere lapurraren memoria mantendu zen. Orain badakigu "bankuak espropiatzen", lapurtzen, zituen CNTko talde bateko kidea zela, CNTko Defentsa Konfederaleko Taldekoa hain zuten ere. Haren kideek armak jaso, dirua bildu, sabotajeak egin, bahiketaren bat eta bestelakoak egiten zituzten. Ekintza zuzeneko jendea

zen. Larrañagaren ibileren berri dakigu Ramon Albarracin Mauloni esker (Etxarriko memoria taldeko kidea).

Celestina eta Martinen semea, 1906ko garilaren 26an jaio zen Maldakalean. Kuadrillarekin sagarrak lapurtzea leporatu zioten 13 urterekin, eta bi eguneko arrastatzea bete zuen. Herria utzi eta Donostiara joan zen bizitzera. Jornalaria ogibidez, CNTko kidea zen eta Arturo ezizena zuen. Donostian ezkondu eta bi alabaren aita izan zen. Hiru kiderekin batera Hondarribian atxilotu zuten, armak

"DELITU ARRUNTAK LEPORATUTA PRESO SARTU ZUTENEZ, EZ ZUTEN AMNISTIAREKIN ASKATU"

eta munizioa zituztela, 1933an. Urte bereko abenduan Logroñon atxilotu zuten, baina epaiketan absolbitu egin zuten. 1933ko abenduan preso sartu eta 20.000 pezetako (120, 20 euro) isuna jarri zioten Larrañagari. Baita Alquezar, Gurruchaga eta beste zenbaiti. Gipuzkoako mugimendu anarkosindikalistako buruzagiak izatea leporatu zieten.

Azken lapurreta

Taldeak auto bat lapurtu ondoren, Iruñeko Sarasate Pasealekuko Banco Hispano Americano (*Las Potxolas* zena) espropiatzen joan zen 1934ko garagarriaren 28ko 10:30ean. Sei kide ziren, eta sartzen "eskuak gora" oihu egin zuten. Lapurreta bitartean bulegoan zeuden komun batean sartu zituzten, baina taldekideak ez ziren jabetu leihotxo bat zuela. Handik lapurretaren berri

eman zieten kalean zeudenei. 70.000 pezeta (420,70 euro) eskuratatu zituzten. Baina ihesean atera behar izan zuten, hiru atoa, beste hirurak hainbat norabideetan laster egiten. Ez harrapatzeko, lapurtutako dirua airera bota zuten. Hala ere, Larrañaga eta bere kideak atxilotu zituzten. Iruñeko Probintzia Auzitegian epaitu zuten garilaren 17an, eta atentatu, banku lapurreta, kalte eta armak legez kontratu edukitzeagatik 14 urteko espetxe zigorra jarri zioten etxarriarri. CNTko kide izan arren preso arrunt gisa sailkatu zuten Iruñeko espetxean sartzean. Ondoren Burgosko espetxera urrunduzuten.

Frente Popular ezkertiarrek hauteskundeak irabazi zituen 1936ko otsailean, eta egunetara preso politikoendako amnistia eman zuten. Baina Larrañaga eta gainontzeko kideak delitu arruntak leporatuta espetxeratu zituztenez, ez zituzten amnistiarekin askatu. Burgosen zegoen preso estatu kolpea eman zutenean. Burgos kolpisten hiriburua bihurtu zen, eta presoerri erreparatzean azkar jakin zuten zein akabatu.

Larrañaga Burgosko espetxetik 1936ko irailaren 9an atera zuten. Espetxezainek lekualdaketa edo aske geratu gisa jaso zuten irteera, eta beste 26 gizonena. Baina kanpoko aldean kamioira igorazi eta hiriburuaren hego mendebaldean 21 km-tara dagoen Estepar herriko mendira eraman

eta han fusilatu zuten. 30 urte zituela hil zuten.

Bisita

Carasatorreren liburuan eta Aranzadi zientzia elkartearen urtekarian Esteparko indusketei buruzkoa lotzean Albarracini susmoa piztu zitzaion. Eta haren berri Larrañagaren iloba Mari Carmen Nazabal Igoari eman zion. Bera hildakoaren familiarekin harremanetan jarri zen, Maria Jesus alabarekin. Fusilatutakoaren familia, 1936ko estatu kolpearen ondoren, Venezuelan exiliatu zen. Gaur egun Puerto Rico bizi da. Haiek uste zuten Irunen desagertu zela, nahiz eta beste batzuetan Gasteiz jarri. Familiari beti esan zioten gaizkilea izateagatik atxilotu zutela Larrañaga. Deshobiratzea egin zela jakinik, gorpuzkiak identifikatzeko lanak errazteko DNA lagina bidali zion Puerto Ricotik Aranzadi zientzia elkarteari. Lagin hori ezinbestekoa izan da Larrañaga identifikatzeko.

Alaba adindua da eta ezin denez etorri, haren alaba Alicia Sagasti Larrañaga etorri zen. Eta bere lehengusu Nazabalekin batera Esteparrera joan ziren otsailaren 5ean. Hilerriko fusilatuen omeneko oroigarria eta mendian gorpuzkiak (96 momentuz, 300dik gora daude han) agertu ziren parajea bisitatu zituzten, familia omenaldi horregatik hunkiturik. Senidea militante politikoa zela jakin dute ere.

DUELA 25 URTE...



Bertso txapelketa Etxarri

Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren finalerdia hartu zuen Etxarri Aranatzko kultur etxeak. Bittor Elizagoien, Xabier Silveira, Xabier Legarreta, Josema Leitza, Manolo Arozena eta Nerea Bruño aritu ziren bertsoetan 250 zalaren aurrean. Gai jartzailea Manu Gomez etxarriarra izan zen. Sorpresaz beteriko saioa izan zen. Txapelketako kartela eta irudia Pablo San Roman altsasuarrak egin zuen.



Julen Martijak eta Jokin Altunak txapelketa gorabeheratsua izan dute, baina finaletik partida batera daude. OSKAR GONZALEZ

"Finaletik partida batera gaude; bukaera arte borrokatuko dugu"

JULEN MARTIJA OLLAKARIZKETA PILOTARIA

PILOTA Altunak eta Martijak gertu dute Binakako finaleko txartela, partida batera. Konfiantzarekin iritsi dira Artolaren eta Imazen kontrako hil ala biziko kanporaketara

Maidar Betelu Ganboa ETXEBERRI
Binakako Txapelketak astero emozioa ekarri du eta joan zen asteburuko ez zen gutxiagorako izan. Batetik, Peio Etxeberriak eta Jose Javier Zabaletak finalerdietako bigarren garaipena lortu zuten Labriten, Artolaren eta Imazen abantaila irauli eta 17-22 irabazita. Finalerdietako orain arteko bi partidak irabazita, martxoaren 31ko Iruñea Arenako final handian dira, Jokin Altunak eta Julen Martijak Erik Jaka eta Jon Mariezkurre-

na 13-22 irabazi eta gero. Aste-buru honek ere emozio handia dakar, igandean, Eibarren Altuna-Martijaren eta Artola-Imazen partidak erabakiko baitu beste finalista nor den. Astelenako sarrerak agortuta daude.

"HALAKO PARTIDETAN TENTSIOA HANDIA DA, ETA GARRANTZITSUA DA HASIERATIK ALDEA ATERATZEA"

Bilboko Bizkaia pilotalekuan Jaka-ren eta Mariezkurrenaren kontra jokatu zenuten partida arraroa izan zen hasieratik. Bi bikoak lehen jardunaldia galtzetik etortzen zireneten, puntua lortzeko larritasunarekin, eta frontoiko giroa ere isila eta nahiko hotza zen, bezperan Labriten ez bezala.

Aldea nabaritzen da. Labriten jendeak beti asko animatzen du eta beste giro bat dago, baina egia da igandean Bilbon jendea nahiko isilik zegoela eta giroa lasaia zela. Hori jokatzeko ez da

txarra. Dena den, tanto bukaeretan jendeak animatzen zuen. Dena den, giro lasaia zegoen baina gero jendeak animatzen zuen. Ez nuke esango giro txarra zela.

Hotza baino, sekulako tentsioa nabaritzen zen. Baikokoek hasieran egindako akatsei esker, konturatu gabe aldea atera zenuten. Zuri ere hasieran ez zitzaizun oso eroso ikusten.

Halako partidetan tentsioa handia da, eta oso garrantzitsua da hasieratik markagailuan aurreratzea, aldea ateratzea. Ni normalean ez naiz urduri jartzen, baina beroketan nabaritu nuen tentsionatuta nengoela. Hasieran ez nuen gozatzen, eta partidaren sartzeko kosta egin zitzaidan, baina aldea atera genuenean, konfiantza hartu nuen. Jokin sekulako partida egiten ari zela ikusita, horrek ere konfiantza eman zidan, eta bigarren zatian gustura jokatu eta disfrutatu nuen. **Mariezkurrenari pilota eskuan sartzeko eta mina hartzeko ere partidaren eragina izan zuen. Nolakoak diren gauzak, Binakako ligaxkako bikoterik indartsuena, finaletik kanpo geratu da, sarritan gertatu izan den bezala.**

Hori askotan gertatzen da. Azken finean jokoan ez zaude beti berdin; batzuetan kostatu egiten zaizu, eta beste batzuetan hobeki zaude. Zaila da beti %100ean egotea. Finalerdietara hobeki iristen den bikotea, nabaritu egiten da. Uste dut gu orain bikote gisa ongi gaudela, finalerdiak momentu onean harrapatu gaitu. Aldiz, eurek lehen partida galdu zuten eta bigarrenean Jonek eskuan mina hartu zuen. Batzuetan halakoak gertatzen dira. Guk gurea ongi egin genuen, gure jokorekin pozik gaude, eta horrekin geratzen gara. Dagoeneko Astelenako partidaren bila gaude.

Txapelketa gorabeheratsua izan da zuendako. Hasieran Jokin sorbaldako minaz osatzen aritu zen eta Elezkanok ordezkatu zuen; Jokin itzuli zen, baina eskuan mina hartu eta Zabalak ordezkatu zuen; finalerdietan berriro elkarrekin hasi zarete.

"PARTIDA OSO-OSO ZAILA DUGU AURRETIK, BADA KIGU, BAINA KONFIANTZAREKIN GAUDE"

Oso gorabeheratsua izan da. Txapelketa hasieran konfiantzaz justu samar nengoen, eta kosta zitzaigun. Pixkanaka hobeki sentitu nintzen, eta behetik gora egin nuen. Zabalarekin hiru partida jokatu nituen, gustura. Zabalarekin bere unerik onenean dago, eta asko jokatu zuen. Orain, Altuna ongi dago eta biok zentratuta gaude, konfiantzarekin. **Igandean Artolaren eta Imazen kontra jokatu duzuen partidak erabakiko du zuetako nor sailkatzen den finalerako. Beraiek galtzetik datoz, eta zuek irabaztetik. Eragina izango al du?**

Horrek ez du ezer esan nahi. Bi bikoteak berdin gaude, finala jokatzetik partida batera. Eurak dena ematera aterako dira, hori argi dut, eta bikote oso-oso gogorra da. Biak ongi daude, Iñaki Artola bereziki; esango nuke bere unerik onenean dagoela. Abiadura handia ematen dio pilotari, atzelariari asko kentzen dio, eta atzera ere asko ematen du. Beraz, kontrako atzelariarendako ez da batere erraza. Pilota hartzen badu, berehala bukatzen du tantoa. Partida oso zaila dugu aurretik, badakigu, baina konfiantzarekin gaude. Ea partida ona egin eta hasieratik alde pixka bat lortzen dugun. Esan dudana bezala, oso garrantzitsua da hasiera. Ikusiko dugu. **Altunak esan zuen Astelenan ia etxean bezala jokatzeko duela. Zuk ere hala sentitzen duzu?**

Eibarren askotan jokatzeko dugu, Astelena Aspeko frontoia delako. Frontoi ona da. Sarrera guztiak saldua daudenez, giro ederra egongo da. Gusturajokatzeko dugu bertan, eta partida ona espero dugu.

Binakako bi txapela dituzu, azkena Altunarekin lortutakoa, 2022an. Txapelketa aurkeztu zutenetik favoritoen artean zeundeten, eta nahiz eta Artola eta Imaz txapelketako sorpresetako bat izan, zuek jotzen zaituzte favorito.

Nik favoritoen kontu horri ez diot garrantzirik ematen. Pentsa, txapelketa gureta ere oso gorabeheratsua izan da. Partida bakoitza mundu bat da, eta edozer gerta daiteke. Bukaera arte borrokatuko dugu, hori argi dugu. **Zein pilota litzateke Iruñeko finalerako sailkatzea eta Zabaleta-Etxeberriaren kontra jokatzeko.** Finalean hiru nafar egotea oso pozgarria litzateke. Partida batera gaude, gertu, baina aldi berean, urrun. Ea lortzen dugun.



SAKANAKO IKASTOLAK

Gu ikastola, ...

Bost hamarkada daramatzagu sakandarrok mahaigaineratutako kezka eta erronketatik abiatutako hezkuntza proiektu hau eskaintzen. Seme-alaben hezkuntza garapena erdigunean jarriz elkarlanean hezkuntza integral

bat eskainiz, euskara eta euskal kultura ardatz etorkizuneko gizarateak izango dituen erronkei erantzuteko gai izango diren ikasleak hazten eta hezten.

Izan ere, ikaslea baitago bere hezkuntza prozesuaren erdigu-

nean. Irakasletoa bidelagun izanda, bera izango da bere hezkuntza prozesuaren protagonista aktibo, pausoz pauso eta bere erritmoan, urratsak aurrera emanez. Honela, DBH bukaera bitarte adostutako irteera profileko konpetentziak eskuratzeko bidean ebaluazio hezigarri eta jarraia izango delarik bere ibilbidea eraikitze gako. Lantalde bat osatzen dugu familiak, ikasleak eta irakasleak eta guztiok helburu berdina dugu: ikaslearen ongizatea erdigunean jarrita, ikaslearen hezkuntza prozesuaren garapena.

Konpetentzietan oinarritutako metodologian eskarmentua dugu. Hamarkada bat daramagu begirada hori ezarria duen materialgintza propiotik konpetentziak garatzen. Ikastolok, sare bezala, materialgintza aurreikusitako behar bati aurre egin izan diogu azken urteetan eta orain ere, horretan dihardugu hizkuntza traetaeraren begirada era integral batean dugun material propio horretan txertatuz, ez baita hezkuntzarik egongo hizkuntzarik gabe. Konpetentziak garatzeko, eguneroko egoerei aurre egiteko

erronka izaten da hezkuntza prozesuko bideorria markatzen duena bidean zehar jakintza eta erreminta desberdinak eskura izaten dituzte ondoren, era autonomo batean, testuinguru hurbileko erronkari aurre egiteko.

Kalitatezko hezkuntza bat eskaini ahal izateko, irakaslearen etengabeko formazioa izaten da giltzarria. Eta hau posible da gure lantalde egonkor eta inplikatuari esker. Legez ezarritako formakuntze gain, ikastolok, sare moduan, Nafarroa mailan zein Euskal Herri mailan ditugun formakuntza sistematikoei esker bideratzen dugu gure irakaskuntza metodologiaren inguruko hausnarketak eta aurrera pausoak.



Baina ezin dugu ahaztu ere, Sakanako ikaslearen profilak eta beharrak identifikatu ondoren, ikastolan aurrera eramaten dugun barne formakuntza, azken urteetan elkarrekintzari eta ulermen sakonari bideratua izan dena. Gure ikasleek dituzten behar zehatzei gertuko erantzun egokituak ematen dizkiegu.

Herritik sortutakoa eta herriarentzat bideratutako proiektua da gurea. Izaera publiko-herri-tarra duena. Bertatik bertara, Euskal Curriculuma oinarri duena. Gure gizaratearen erronkei eta beharrei begira, etorkizuneko euskaldun eleaniztunen hezkuntza prozesua eskaintzen dugu Sakanan. Iñigo Aritzta Ikastolak eta Andra Mari Ikastolak beste 112 ikastolekin batera Euskal Herri luze-zabalean euskarazko murgiltze eredu eta euskal Hezkuntza sistema propioa eskaintzen ditugun sare bakarra gara, auzolanean, ikasleak, gurasoak eta langileak elkarrekin, Ikastola denontzako proiektua delako, inklusiboa, solidarioa, feminista eta laikoa.

Horregatik, GU IKASTOLA ETA ZU?



AURREMARIKULAZIOA 2024-25

HH-LH MARTXOAREN 18TIK 22RA / DBH APIRILAREN 8TIK 12RA

**IÑIGO
ARITZA
IKASTOLA**

ikastola@inigoaritzta.eus
San Pedro, 16. Altsasu
948 56 29 51 / 606 03 09 66



**TXIOKA
HAUR
IKASTOLA**

txioka.haur.ikastola@inigoaritzta.eus
Santokristobarren, z/g. Altsasu
948 31 43 98 / 689 45 41 68



**ANDRA
MARI
IKASTOLA**

etxarri@ikastola.eus
Utzubartxiki, 3. Etxarri Aranatz
Kale nagusia, z/g. Arbizu
948 46 02 86



HITZORDU PERTSONALIZATUAK HARTZEKO AUKERA

SAKANAKO HERRI ESKOLAK

Herri hau sortzen segi dezagun

Ziorditik hasi eta Irurtzuneraino bailara zeharkatuz, Sakanan zehar zabaldua gauden berderatzi herri eskolak gara. **Kali-**

tatezko herri eskola publiko, inklusibo eta euskaldunak.

Sakanako kaleetan barrena dabilzan haur guztien eskolak

gara. Ateak zabal-zabalik ditugu; sakandar guztien eskura gaude; **guztiak zarete ongi etorriak gurean.**

Etxetik gertu gauden eskolak gara eta horixe da gure familiek biziki estimatzen duten gure ezaugarri nagusietako bat; alegia, **gertutasun horrek dakartzan konfiantza, afektibitatea eta elkarlana.** Izan ere, familia eta eskolaren arteko hartu-eman zuzenak, ikasle bakoitzaren eguneroko jarraipen estua egitea eta heziketa prozesua pertsonalizatzea posible egiten

baitigu; familiek ez ezik, herri eskoletako profesionalok ere ezinbestekotzat jotzen ditugu gertutasun eta elkarlana, horrek gure lana hobetzea ahalbidetzen digu eta.

Gure ikasleak dira gure argia eta bakoitzaren indarguneetan begirada jarrita, guztiei eta haietako bakoitzari kalitatezko hezkuntza eskaintzen diogu. Izan ere, orohar gure eskoletan ditugun ikastaldearen ratioak altuak ez izateak, **guk, ikasle bakoitzari arreta pertsonalizatua** eskaintzea posible dugu.

Gure lantaldeen profesionaltasun eta gertutasunari esker ikasleak gertutik eta goxo zain-tzen ditugu.

Horretarako **pedagogia eta ikasmaterial anitzak darabilzkigu**, ikasle bakoitzaren beharretara egokituz eta haietako bakoitzaren presentzia, parte hartzea eta ikaskuntza ahalbidetuz. Aniztasunari aniztasunez erantzuten diogun eskolak gara eta horrek egiten gaitu aberats.

Gure haur, familia eta komunitatearen ongizatea ditugu xede. Horregatik gure heziketa eremuan, irakasle zein familiek, **gure haurrak sexu, arraza, kultura eta klase sozialen arteko mugak gaudituz hezi behar ditugula argi dugu.** Horretarako gizarterako ezinbestekoak diren askatasun, elkartasun, berdintasun zein diskriminazio eza eta errespetuan oinarritutako trebetasunak landuz.

Gure heziketa prozesuan **eus-kara dugu ardatz**; jatorri eta helmuga aldi berean. Sakana euskalduntzeko arduraz eta gogoz egiten dugu lan. Gure eskoletan euskalduntzen baitira etxean euskararik ez duten haurrak. Hortaz harro gaude; euskalduntzen dugun euskaldunak gara eta.

Gure herriak biziki maite ditugu eta haietako bakoitzeko ohitura eta tradizioen transmisioan arduraz dihardugu, gure herrietako bakoitzaren oraina eta etorkizunarentzat lan egiten dugula badakigu eta. **Gure ikasleentzat herria beraien ikasketaren prozesuaren parte da.**

Hezkuntza berrikuntza etengabean dihardugu, horretarako, gure eguneroko lanean eragin zuzena duen pedagogia berri-zaile, heziketa emozional eta bizikidetzan oinarritutako formakuntza jasoz eta gure ikastetxeak baliabide pedagogiko zein teknologikoz hornituz.

Kalitatezko kudeaketa sistemak ere badauzkagu eta **kalitatezko ikastetxe aintzatespenak** jasotzen hasiak gara, hezkuntza publikoaren bikaintasunaren adierazgarri. Bide beretik lanean jarraituko dugu.

Sakanako herri eskoletan sakandar jator, arduratsu, parte-hartzaile, konprometitu, ekintzaile eta euskaldunak heziz, herri hau sortzen jarraituko dugu, euskaratik eta euskaraz.





SAKANAKO

Herri-Eskolak

PUBLIKOAK
PUBLIKOAK

EUSKALDUNAK
EUSKALDUNAK

INKLUSIBOAK
INKLUSIBOAK

KALITATEZKOAK
KALITATEZKOAK



EMAN IZENA martxoaren 18tik 22ra



Ekologia
Konfidantza
Ra
Altsasu
Za
Proiektua
Lana
Emaizak
Prozesua
Aniztasuna
familia
Adiskidetasuna

Eskola aurrez aurre
 ezagutzeko hitzordua
 eskatu
 948562035

HH, LH eta DBH
 aurrematrikulazioaren
 martxoak 18-22



Altsasuko Korazonistak
 Corazonistas Alsasua



ALTSASUKO KORAZONISTAK

Korazonistak tipi tapa

- **TAPA – KONFIANTZA**
Gure pedagogiaren oinarrian
- **TIPI – LANA**
Egunero, hilabetero, ikasturtero
- **TAPA – EMAITZAK**
Hobetuz beti
- **TIPI – EUSKARA**
Bihotzean eta ahoan
- **TAPA – ALTSASU**
Geure herrian eta geure herrirako
- **TIPI – PROZESUA**
Eraldaketa posible delako
- **TIPI – BERRIKUNTZA**
Egunerokoan eta etorkizunera begira
- **TAPA – ANIZTASUNA**
Aberasten gaituelako
- **TAPA – ADISKIDETASUNA**
Ikasleengan sortu eta sustatuz
- **TIPI – FAMILIA**
Gertu-gertutik hezten
- **TAPA – PROIEKTUA**
Hezkuntza berritzen





Amarika, Nieve, Mintegi, Guajardo, Flores, Hernandez, Azanza eta Guerrero. Itzulia Sakanan egotearen garrantziaz aritu ziren.

Mundiala izango da

TXIRRINDULARITZA Itzuliak Sakanan izango dituen bi etapak aurkeztu dituzte. Apirilaren 3an Altsasun despedituko den etapa "ikusgarria" izango da, sei porturekin, eta apirilaren 4an Itzulia Etxarri Aranaztik abiatuko da, munduko izarrak gertutik ikusi ahal izateko

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Hemeretzi egun barru munduko txirrindulari onenak hemen egongo dira. Itzulia Basque Countryko bi etapa Sakanan jokatu dira: apirilaren 3an Ezpeleta-Altsasu, (190,9 km), eta apirilaren 4an Etxarri Aranz-Legutio (159 km). Juan Mari Guajardo altsasuarrak eta Iker Amarikak Iortia kultur gunean gidatutako aurkezpenean, Itzuliko Oceta elkarteak Julian Eraso presidentek adierazi zuen Itzulia ez dela soilik kirol ekitaldi bat, "askoz ere harago doa, marabilla hutsa da".

2023ko irabazle Vingegaard, eta Roglic buru direla, Evenepoel, Yates, Landa, Carapaz, Quintana, Aranburu, Izagirre anaiak eta beste lehiatuko dira, zerrenda luzea. Taldeen azkeneko erabakien esperoan, soilik Pogacar faltako litzateke izarren klubean.

Sakandarren artean, momentuz, Igor Arrieta eta Gorka Izagirre.

Makineria ikusgarria Zenbakiak erraldoiak dira. 24 talde lehiatuko dira; bakoitzak bost auto ditu, gehi taldeko kamioia, eta horri antolakuntzako motorrak, autoak, helikopteroa eta bestelako azpiegitura guztiak gehitu behar zaizkio. 80 hotel behar izaten dira. Eurosporten bidez munduko 165 herrialdeetan zuzenean jarraituko da Itzulia, eta seinalea 18 milioi etxetan jarraituko dela aurreikusten da. "Itzuliak 1.400.000 euroko

"ITZULIA KIROLETIK HARAGO DOA, EKITALDI IKARAGARRIA DA. SAKANA BETEKO DA"
JULIAN ERASO

aurrekontua du, eta Itzuliaren borobil hori osatzea ez da erraza izaten. Horregatik, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Altsasuko eta Etxarri Aranazko Udalei, Nafarroako Gobernuari eta etapak babesteko ahalegina egin duten Sakanako eta inguruko enpresei. Aspaldi nahi genuen Itzulia berriro Sakanara heltzea, sekulako zaletasuna dagoelako, bertako klubetatik txirrindulari profesional eta zuzendari handiak atera direlako, eta Sakana txoko zoragarria delako. Aurten lortu dugu, eta oso pozik gaude" eskertu zuen Eraso. Itzuliak aurten mendeurrena ospatzen du. "Berezia izango da. Euskal Herriko lurralde guztietatik pasako da".

Altsasura laugarrenez iritsiko da Itzulia. 1977ko etapa Jose Antonio Gomez Linaresek irabazi zuen, 2002koa Aitor Osak,

eta 2005ekoa Alejandro Valverde. "Itzulia kirol ekitaldi bat baino gehiago dela argi genuen, eta antolakuntza harremanetan jarri zenean, horregatik egin genuen ekartzeko apustua, Itzulia Altsasuren leiho paregabea izango delako" adierazi zuen Javier Ollo alkateak. Babesleekin harremanetan jartzeaz gain, Altsasuko Udalak Etxarri Aranazko Udalarengana jo zuen, ekimena partekatze aldera. Horrela, Etxarrik bigarrenez hartuko du Itzulia. 1996an Etxarri despeditu zen etapa Simone Biascik irabazi zuen, eta hurrengo egunekoak Lakuntzatik abiatu zen. "Guretako ohore handia da Itzuliko etapa hasiera hartzea. Hunkitu eta guzti egin ginen. Erroka handia da, baina polita izango da munduko txirrindulari onenak gertutik ikustea. Sakana guztian festa handia izango da" azaldu zuen Maria Saez de Albeniz alkateak.

Guajardok Altsasuko Burunda klubetik sortutako txirrindulariak izan zituen gogoan, Jorge Azanza, Pablo Urtasun eta Iker Mintegi, eta Aralar Klubetik sortutakoak, Gorka Verdugo, Egoi Martinez, Jose Luis Arrieta, Josu Etxeberria eta Igor Arrieta. "Betiko arerioak, baina harreman onekoak. Ziur Itzulian aitorza jasoko dutela".

Altsasuko Itzuliko etapa luzeena izango da. Sei portu izango ditu: Otsondo, Usategieta, Uitz, Zuarrarrate, Olaberria eta Lizarrusti. Zuarrarratetik Altsasuraino iritsiko da, herrian sartu, Otzaurtetik Zegamara heldu, eta Lizarrustitik Etxarri helduko da, Altsasun despeditzeko. "Etapak ikusgarria izango da. Txirrindulari onenak daudenez eta gaur egun ibiltzen den abiadura kontuan hartuta, banago 50 txirrindulariz osatutako taldea iritsiko dela batera helmugara" zioen Guajardok. Mikel Nievek (Kern Pharmako zuzendaria), Iker Mintegik (Euskalteleko txirrindularia), Iker Flores Euskalteleko txirrindulari ohia, Juanma Hernandezek (Rural Kutxa-Seguros RGako managerra), Jorge Azanzak (Euskalteleko zuzendaria) eta Oscar Guerrerok (Israel Premier Techeko zuzendaria) Itzulia Sakanan jokatzeko garrantzia aipatu zuten. "Itzulia gure lasterketa da, etxekoa, eta sekulakoa. Hiru handiak kenduta, egutegiko garrantzitsuena".

Sakanako etapen aurkezpena



Ollo, Saez de Albeniz eta Eraso.

Photocall-a

Aurkezpen ekitaldia hasi baino lehen, protagonistek antolatzaileek, Altsasuko eta Etxarri Aranazko alkateek, txirrindulari ohiek, kirol zuzendariak eta bestelakoek—talde argazkiak egin zituzten lortuak korridorean.



Bi alkateak, hitzarmena sinatzen.

Hitzarmena

Javier Ollok eta Maria Saez de Albenizek, Altsasuko eta Etxarri Aranazko alkateek, Itzulia antolatzen duen Oceta elkarteak Julian Erasorekin Itzuliko bi etapak hartzeko hitzarmena sinatu zuten.



Sakana betetzea espero dute.

Zaleei deia

Sakandarrek Itzuliko etapak jarraituzera animatu ditu antolakuntzak. Portuak, mendiak, herriak, Altsasuko helmuga, Etxarriko irteera... txoko guztiak betetzeko deia egin dute, Itzulia "Sakanako erakusleho" izango delako.

Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL Igor Arrieta Lizarragarendako (2002-12-08, Uharte Arakil) denboraldi garrantzitsua da 2024koa. Aralar klubean txirrindulari gisa hezi, Lizarte afizionatuetan trebatu, eta Kern Pharma taldearekin profesional mailara salto egin ondoren, 2024 urtean beste pauso bat egin du aurrera eta UCI World Tour mailako talderik garrantzitsuenetako batean ari da, 2023ko talde onenaren saria lortu zuen UAE Emirates taldean. Beste modu batera esanda, Tadej Pogacarren taldearekin 2026ra arte sinatu du.

Noiz izan zenuen UAE Emirates taldearen interesaren berri?

Joan zen urtean. 2023 urte hasieratik hasi ziren galdezka, eta baita urtean zehar ere bai. Nire etorkizuna non ikusten nuen galdegiten hasi ziren. Eta beranduago egin zidaten proposamena. **Momenturen batean zalantzarik izan al zenuen? Edo berehala baiezkua erantzun zenuen?**

Kern Pharma taldean gustura nengoen eta aldatzea ez da erraza, baina halako talde batek deitzen badizu, ez da behar ere asko pentsatzea. Nire kasuan buelta batzuk eman nizkion, baina ez nuen erabakia hartzeko denbora asko behar izan. World Tour mailan nago, beste pauso bat eman dut aurrera, eta pozik nago.

UAE Emirates ez da edonolako taldea. 2023an UCI World Tour mailako talderik onena izan zen. Tadej Pogacarren taldea da, eta txirrindulari handiak daude: Yates, Soler, Oliveira, Hirschi, Ayuso... Baliabide handiak dituen taldea da. Hasieratik nabaritu zenuen UAE Emirates taldea beste maila batekoa zela?

Bai. Munduko txirrindulari onenak daude hemen, eta hori nabaritzen da. Eta baliabideak, jakina. Taldearekin bildu nintzen lehendabiziko eguna Arabiar Emirerri Batuetan izan zen, pentsa. Hori beste mundu bat bezalakoa izan zen. Kern Pharmarekin etxean bezala nengoen, egoitza Iruñean baitu, eta UAE-rekin lehenengo eguna halako bidaia izan zen. Gainontzeko kontzentrazioetan ere beste baliabide batzuk dituztela sumatzen duzu. Askorik nabaritzen da.

Nolako harrera egin zizuten?

Oso harrera ona egin zidaten. Halako talde batean, halako txirrindulariekin, nola hartuko ninduten, ardura banuen, baina hasieratik ongi sentitu naiz taldean. Oso gustura nago bai tal-

"Itzulia prestatzen ari naiz; oso gogotsu nago"

IGOR ARRIETA LIZARRAGA UAE EMIRATES TALDEKO TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA 2023ko txirrindularitza talderik onenean, UAE Emirates taldean debut itzela egin du uharte arakildarrak. Itzulia Basque Country mimoz prestatzen ari da



Igor Arrieta ikusgarri aritu zen Mallorcako Challengean. UAE EMIRATES

dekideekin, baita *staff*eko langile guztiekin.

UAE-rekin fitxatu duzuetik zer da jendeak gehien galdetzen dizuna?

Gehienbat nolakoa den halako talde batean egotea, eta zer nolako ezberdintasunak dauden. Kern Pharma taldetik munduko talderik handienetarikoa batera zoaz, eta jendeak jakinmin hori du. Baita ere nolakoa den halako taldekideekin egotea. Izan ere, dena aldatzen da, hizkuntza bera. Taldekideekin ingelesez hitz egiten dugu, baina *staff*ean masajista eta mekanikari batzuk estatu espainiarrekoak dira, eta beraiekin hartu emana ezberdina da. Giro ona dugu taldean, eta hori oso ona da.

Pogacarrengatik galdetzen al dizute, ea nolakoa den?

Bai, hori ere bada egiten didaten beste galderetako bat (kar-kar). Berarekin bat egin dudanean, mutil jatorra iruditu zait. 25 urte ditu, eta beste edozein mutil gazte bezalakoa da. Oso pertsona ona, nik uste.

Nolakoa izan da egokitzea? Martxa hartzea kostatu egin zaizu? Entrenamenduak, elikadura... asko aldatu behar izan dituzu?

"UAE EMIRATES BETI IRABAZTERA ATERATZEN DA, ETA MENTALITATE HORI IZAN BEHAR DUZU"

Beti aldatzen da zerbait. Entrenatzailea eta nutrizionista aldatzen dituzu, eta, hortaz, dena da pixka bat berria, baina momentuz eramangarria egiten ari zait. Entrenatzerakoan beste erritmo bat nabaritzen da; azkenean txirrindularitza maila honek beste erritmo bat eskatzen du. Hasieran hori zaude, ea mailari eusteko gai izango ote zaren pentsatzen, baina nik hori motibazio gisa hartzen dut.

Aurretik Kern Pharmarekin World Tour mailako proba batzuetan parte hartu izan duzu, baina orain guztiak dira maila horretakoak. Zein da aldaketa nabarmenena, abiadura?

Lasterketak, orain arte, joan zen urtekoekin alderatuta nahiko antzekoak izan dira, baina aldatzen dena da orain World Tour mailako talde batean zaudela, eta taldea lasterketa guztietara irabaztera ateratzen dela. Mentalitate hori izan behar duzu. Egun ona duzunean edo aukera ikusten duzunean aurrean egoteko edo lehiatzeko jarrera hori izan behar duzu, eta gainontzeko egunetan, liderrak laguntzeko joera. Lasterketak nola ikusten eta planteatzen dituzun, hori aldatzen da.

UAE-n sekulako debuta egin duzu. Valentziako Klasikoan ihesaldian sartu zinen, Castellonen ere saikera egin zenuen, eta Mallorcako Challengean arrastoa utzi zenuen, eguneko ihesaldian sartuta, soilik eroriko batek aurrean egotea egotzi zizulako. Valentziako Voltan eta Murcian ere ongi aritu zinen, Jaengo Klasikoan aurrean egon zinen, eta Frantziako klasikoan ongi. Zuk ere sentipen hori al duzu?

Nik ere horrela sentitu dut. Ez da erraza halako talde batean aritzea. Ongi hasi naiz, eta honek denboraldiari ongi aurre egiteko konfiantza ematen dit. Baita nire buruarekiko konfiantza izaten laguntzen dit, gauzak ongi eginez gero hori egon naitekeela erakusteko. Debutarekin kontentu nago. **Taldean kontentu daude zure hasiera honekin?**

Bai. Urte hasiera honetan konfiantza eman didate, eta nirekin pozik daudela sentitzen dut.

Denboraldiko egutegia zehaztua al duzu? Edo pausoz pauso zoaz? Sierra Nevada egon zara kontzentratuta, zer aurreratu dezakezu?

Sierra Nevada nago, Miguel Indurain eta Itzulia Basque Country, etxeko lasterketak prestatzen. Oso gogotsu nago. Proba

horiez gain, momentuz dakidana da Asturiasko Itzulia eta Hungariako Tourra egingo ditudala. Itzulian ez zara berria. Kern Pharmarekin aritu zinen, 2022 eta 2023 urteetan. Aurten planteamendua ezberdina izango da, zure taldea irabaztera aterako delako. Nolanahi ere, etxeko lasterketak beti dira bereziak eta aurten Itzulia bi egunez egongo da Sakanan.

Itzuliko etapa bat Altsasun bukatzea eta bestea Etxarri Aranzten hastea, oso berezia izango da. Yates, Ayuso, Soler eta halako taldekideak izanik, beraiendako lana egitea tokatuko zait, eta gustura egingo dut, ilusioz.

Txirrindularitza zaleak pozik daude Itzulia Sakanatik pasako delako eta munduko txirrindulari onenak gertu ikusteko aukera bertan dugulako. Sakanan zaletasun handia dagoela kontuan hartuta, halakoek txirrindularitza sustatzen dutela uste duzu? Baietz uste dut. Azkenean halako lasterketa bateko etapa bat Sakanan bukatzeak, eta beste bat ere bertatik abiatzeak, sakandarrak proba jarraitzea animatuko dituela uste dut. Itzulia mundu mailan lasterketarik onenetariko da, eta Sakanatik pasatzen denez, txirrindularitza sustatuko du.

Itzulia berezia izango da aurten, lehen edizioko mendeurrena ospatzen delako. Horregatik, Euskal Herri guztitik pasatzeko apustua egin dute. Bitxia, ezta?

Bai. Gu leku guztietatik ibiltzen gara, baina etxeko errepideetatik pasatzea, beti izaten da polita. Ilusio handiz hartzen da. Jende ezaguna egongo da animatzen, eta ederra izango da.

Tadej Pogacarrek 2020ko eta 2021eko Tourrak irabazi zituen. Hain zuzen ere, Tourra irabazi duen txirrindulari gazteena izan zen 2020an, 20 urte baitzituen. Azkeneko bi Tourretan bigarren izan da, Jonas Vin-



Igor Arrieta Lizarraga. UAE EMIRATES

gagaarden (Visma) atzetik. Aurten ere Tourra irabaztera aterako da? Nik oraindik lasterketa batean ez dut berarekin bat egin, baina ziur nago bere helburua Tourra irabaztea izango dela. Azkenean, presioa beti hor dago. Gaur egun lasterketa guztietan irabaztera ateratzen da Pogacar, eta ziur ere Tourra nahiko duela.

Giroan, Tourrean edo Vueltan aritzeko aukera izango duzu? Edo aurten ez zara arituko?

Printzipioz aurten ez naiz handiren batean arituko. Joan zen urtea, erorikoarekin, urte arraro samarra izan zen, eta urte honetan helburua berriro ere lehikorra izatea da, eta nire maila hobetzea. Taldeak dudan guztia ematea eskatu dit, errendimendua ona izatea. Eta hori nire konfiantzari ezin hobeki dator, halako talde batean halako egutegia eta aukera ematea.

"ITZULIA SAKANAN BI EGUN EGOTEA OSO BEREZIA IZANGO DA. ILUSIO HANDIZ HARTZEN DA"

Txirrindularitza odoletik dator kizu. Jose Luis Arrieta txirrindulari ohia- ren eta entrenatzailearen semea zara. Pozik dago eman duzun saltoarekin?

Uste dut pozik dagoela, bera ere erabaki honen parte delako. Nik hartzen ditut erabakiak, nire bizitza delako, baina aitzak txirrindularitzan esperientzia handia du, eta gertu izanda, lagundu zidan. Mundu hau primeran ezagutzen du, eta esaten dizkidanak neure hobe beharrez esaten ditu. Halako aholkuak oso ongi datozkit. Ahal duenean lasterketak ikustera etortzen da.

Tropelean tarteka beste txirrindulari sakandarrekin egiten duzu topo. Gorka Izagirre (Cofidis), Iker Mintegi (Euskaltel Euskadi), Mulu Haimichaela (Rural Kutxa-Seguros RGA)... nola ikusten dituzu?

Ongi. Aurten Iker Mintegik ere pausoa eman du profesionaletara, eta bere lehenengo urtea izateko oso ondo ari da urte hasierako lasterketa hauetan. Eta seguru denboraldian ere hala jarraituko duela. Entrenamenduetan tarteka bat egiten dugu sakandarrok. Orain Sakanan talde polita dago entrenatzeko: Izagirre anaia, Mulu, Mintegi... ondo moldatzen gara, eta entrenatzeko garaian ongi dator konpainia izatea eta etxetik gertu zu bezalako profesionalak izatea.

Txirrindularitzaren aurpegi tristee- na Josu Etxeberriari gertatu zaiona da. Auto batek harrapatu eta gero, osatzen ari da. Tamalez, txirrindularitzaren alde negatiboa da hori.

Bai, eta alde hori hor dago, ezin dugu ahaztu. Josu pasatzen ari dena ez diot inori opa nahi. Edozeini gertatu dakioke hori, auto batek harrapatu edo edozein istripu edo eroriko izatea. Gure lanaren parte da, zoritxarrez. Ea ongi errekerperatzen den.



2024 denboraldiko Sakana Group-Alea Aralar taldea. UTZITAKOIA

2024ko Sakana Group-Alea, martxan

1980 urtean sortu zen Aralar Txirrindulari Taldea, Lakuntzan. Horrela, aurten bere 44. denboraldiari ekin dio taldeak, eta larunbatean egin zuen aurkezpena, Harivenasa (Alea) babesleak Etxarrenean duen egoitzan.

Aralar klubetik adierazi dutenez, Alea-Sakana Group eskolen mailako taldeetan 25 neska-mutiko trebatuko dira aurten: promesen mailan txirrindulari bat, hasi berrietan zortzi, kimuetan hamaika eta haurren mailan bost. Kadeteen Sakana Group-Alea, aldiz, hamar txirrindularik osatzen dute, eta aurten, tamalez, ez da juniorren talderik atera. Kadeteen taldeak larunbatean Fortunan (Murtzia) hasiko du denboraldia, Espainiako Kopako bigarren lasterketan. Sei txirrindulari lehiatuko dira, bigarren urteko Erik Laiglesia, Janitz Zufiarre eta Luca Martinez, eta lehen urteko Ion Unai González, Ekai Erdozia eta Alex Gonzalez.

Alea eta Sakana Group dira Aralar Txirrindularitza Taldeko babesle nagusiak, bestelako babesleekin batera: Permagsa, Barranquesa, Kia Sakimovil, Rotugrafik, Argiro, Bikain, Xalok... "beraieie esker Sakanako txirrindularitza zaletasuna bizirik mantentzen dugu". Aralartik makina bat txirrindulari profesional atera dira: Javier Garziandia, Jose Luis Arrieta, Egoi Martinez, Gorka Verdugo, Javier Etxarri, Josu Etxeberria eta Igor Arrieta.

Iker Gomez, Belgikako Guido Reybrouck Classic-en Gizonezkoen junior mailako Espainiako selekzioak Guido Reybrouck Classic-en parte hartuko du. Manuel Mateok hautatutako seikotean Iker Gomez (Quesos Albeniz) altsasuarra dago. Nazioen Kopako probak prestatzeko lehiatuko dira, bereziki apirilaren 7an jokatu den Paris-Roubaixera. Galtzadarrietan ibiltzen ikasiko dute, eta "esperientzia izugarria" izango da, Gomezen esanetan. Larunbatean 11,4 km erlojupekoa dute, eta igandean 121,9 km-ko proba, galtzadarrietako 14 eremurekin.

bertako
igogailuak | ascensores
KORRIKAN ERE

**EUSKARA,
GURE HELBURU
PARTEKATUA**

848 870 917 bertoko.eus





Astiz, gorenean. FEDERAZIOA

Mikel Astiz, Nafarroako Sprint Duatloi txapelduna

DUATLOIA Ihabardarrak segundo bateko aldearekin irabazi zuen Agoizko Duatloia

Martxoaren 3an Lizarran irabazi eta gero, Mikel Astiz ihabardarrak (Hiru Herri) aste bat beranduago bigarren garaipena lortu zuen III. Agoizko Duatloian. Proba Nafarroako Sprint Duatloi Txapelketa zenez, ihabardarra Nafarroako txapelduna dugu.

Eguraldi petralarekin jokatu zen proba (4,8 km-22 km-2,5 km). Haizeak gogor jo zuen, hotza zen nagusi eta kazkabarra ere. Astiz izan zen lehena helmuga gainditzen (1:08:17), eta segundo bakarra atera zion Magañari (1:08:18). Emakumezkoetan, Niobe Arregi (Hiru Herri) izan zen txapelduna (1:24:35). Gai nontzeko sakandarren kasuan, Ruben Garcia (Sakana T.T.) 33. sailkatu zen (1:19:32), Jose Ignazio Mikeo (Hiruki) 51. (1:28:01), eta Juan Carlos Gomez (Sakana T.T.) 55. (1:30:50). Sergio Garcia de Eulatek proba utzi behar izan zuen.

Mikel Astizen hurrengo nahia martxoaren 23an jokatu den Altsasuko XIII. Duatloian joan zen urtean lortutako garaipena berritzea da. Aurtengo erronka nagusia apirilaren 13ko distantzia erdiko Zuiako Duatloia izango da, eta hiru half triathloi egiteko asmoa du: Peñiscola, Oropesa del Mar, eta Burriana.

Derbia irabazita, Kopara animotsu iritsiko da Xota

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Xota denboraldiko bere hitzordu garrantzitsuenaren atarian dago: martxoaren 21ean, osteguna, Espainiako Kopako final laurdena jokatu du Barçaren kontra, Cartagenan, eta sorpresa emateko prest dago

Zazpi jardunaldi jarraian galdu ondoren, Osasuna Magna Xotak 5-2 irabazi zion Iluminación Tudelano Ribera Navarrari Anaitasunan jokatuako derbian.

Betiko Dani Saldise

Dani Saldise jokalaria irurtzundarra izan zen protagonistetako bat, bi gol sartu, eta bi asistentzia egin zituelako. "Taldeak garaipea merezi zuen. Lan handia egiten ari gara, baina zorzea alde izatea falta zitzaigun. Beraz, derbia bezalako partida berezi batean 3 puntuak lortzeagatik oso pozik gaude" azaldu du pibot irurtzundarrak. Saldisek bere maila onenera gerturatzeko ari dela gaineratu du. "Hiru urte egon naiz etxetik kanpo, joko sistema guztiz ezberdina duten Movistarren eta Palma Futsalen, eta etxera bueltan, ez nintzen guztiz nire mailarik onenean sentitzen. Gutxika gerturatzeko ari naiz". Horregatik oso pozik dago. "Betiko Dani Saldise ikustea nahi dut".



Dani Saldisek bi gol sartu eta bi asistentzia egin zituen derbian. XOTA

Gaur, ostirala, ligako partidaren Xotak Industrias Santa Colomaren kontra jokatu du, Katalunian. Segidan, denboraldiko hitzordu garrantzitsuenak du talde berdeak: Cartagenan jokatu den Espainiako Kopa. Final

laurdena martxoaren 21ean, osteguna, 18:30ean, jokatu du talde irurtzundarrak, hain zuzen ere ligako lider Barçaren kontra. Berdeek erronka zaila dute aurretik, baina oso animotsu dauge, sorpresa emateko prest.



Herri kirol festa Burundan

HERRI KIROLAK Altsasuko Burunda pilotalekuak Nafarroako Herri Kirol Jokoen Txapelketako hirugarren jardunaldia hartu zuen igandean, eta frontoia txiki geratu zen. Giroa ikusgarria izan zen, eta proba konbinatueta eta sokatiran, dena eman zuten parte

hartzaileek. Sakanako ordezkariak Iñigo Aritza eta Andra Mariko taldeak izan ziren. Txapelketako laugarren jardunaldia Elizondok hartuko du, martxoaren 17an, eta final handia Etxarri Aranatzek jokatu du, martxoaren 24an.

FUTBOLA

EMAKUME PREFERENTEA

2. JARDUNALDIKO EMAITZA
Idoia - Altsasu 4-4

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA . 2. FASEA

1 Gares 6
3 Altsasu 1

HURRENGO JARDUNALDIA

MARTXOAK 14, IGANDEA

17:30 Altsasu - Berriozar B (Dantzaleku)

Altsasuk Berriozar B hartuko du

Altsasuk puntu bat ekarri zuen Oteizako partida lehiatutik. Etzi Berriozar du aurkari.

GIZON PREFERENTEA

23. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Beti Onak B - Altsasu 1-0

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Burlades B 46
12 Altsasu 29

HURRENGO JARDUNALDIA

MARTXOAK 17, IGANDEA

12:00 Altsasu - Infanzones (Dantzaleku)

Altsasu, Infanzonesekin puntuatzeraz

Atarrabian gutxieneko aldearengatik galdu ondoren, berriro ere garaipenaren bidea berreskuratu nahi du Altsasuk. Etzi azken aurrekoa den Infanzonesen kontra egingo du saikera.

Zalduaren errebantxa handia

Elomendiko Txapelketan, aspaldiko partez garaipena lortu zuen Zalduak, 0-10, Bidezarraren kontra. Arakildarrek bosgarren jarraitzen dute eta Bar Olmo dute aurkari.

GIZON ERREGIONALA

20. JARDUNALDIKO EMAITZA

Etxarri Aranatz - Berriozar 2-1

Lagun Arteak atseden jarduna zuen

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Mutilbera C 45
2 Etxarri Aranatz 44
6 Lagun Artea 32

MARTXOAK 17, IGANDEA

16:30 Etxarri Aranatz - Ardoi B (S. Donato)

18:15 Asdefor - Lagun Artea (Amigo 2)

Etxarri, liderretik puntu bakarrera

Azken garaipenari esker Etxarri Mutilbera liderra zelatan du. Etzi sailkapenean hirugarren eta arerio zuzena den Zizur hartuko du. Sailkapena dago jokoan.

Lagun Artearen buelta

Atseden jardunalditik bueltan, Lagun Arteak Asdefor izango du aurkari. Lakuntzarrek sailkapenean gora begiratu nahi dute.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 15

LAKUNTZA Aurkezpena.

Sakanako Kontseilu Sozialistaren
Sakanako Laneko Autodefentsa
Sarearen aurkezpena.
18:00etan, kultur etxean.

ARBIZU Ipuin kontalaria.

Izaskun Mujika ipuin kontalariaren
saioa, Arbizuko Ikastolaren 50.
urteurrenaren Arbizuko ikastolak
herriari egitarauaren barruan.
18:00etan, udaletxeko batzar aretoan.

ALTSASU Hitzaldia.

Indarkeria estetikoari buruzko
hitzaldia Berhezi elkartearen eskutik.
Euskaraz. Altsasuko Udaleko Gazteria
zerbitzuak antolatuta, Berdintasun
zerbitzuak Emakumearen Egunaren
harira antolatutako *Isilarazi*
matxismoa programaren barruan.
18:00etan, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Tailerra.

Irakurkide txakurrekin irakurtzeko
tailerra, Biak Baten eskutik.
18:15ean, liburutegian.

IRURTZUN Film dokumentala.

HRP Pirinioetako zeharkaldi handia
proiektzioa eta solasaldia Zigor Gartzia
Zianekin eta Paula Laitarekin, euskaraz.

ZORION AGURRAK



Ane Oraa Gonzalo
Zorionak Ane! Zenbat
handitu zaren, egun
polita pasa! Muxu
handi bat zure
famiariaren partez.

Mendi Jarduerak programaren barruan,
Iratxo elkarrekin eta Irurtzungo Udalak
antolatuta. Ondoren, Bilboko *Mendi film*
festibaleko Udalatx ura eta atxa film
dokumentalaren emanaldia, euskaraz
gaztelaniazko azpidatziekin.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Aurkezpena.

Altsasuko Gazte Koordinadora
Sozialistaren (GKS) *Etxebizitzaren sarbide*
eza borrokatu dinamikaren aurkezpena.
19:00etan, gaztetxean.

IRURTZUN Batzarra.

Irurtzungo festetan Barazkiguneko
ekitaldiak antolatzeko bilera.
20:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Ikuskizuna.

Jon Maiaren *Kantu berri bat gara*
kontzertua.
22:00etan, kultur etxean.

LARUNBATA 16

ALTSASU Txirindula irteera.

Barranka Txirindularitza Taldearen
talde mistoaren irteera: Ubabako
begiratokira 45 kilometroko ibilbidea.
09:00etan, Zumalakarregi plazan.

OLATZAGUTIA Mendi irteera.

Altsasuko Mendigoizaleak taldearen
irteera: Urbasa.
09:15ean, Urbasako interpretazio
zentroan.

ETXARRI ARANATZ Bilera.

Mendiko ibilbideak markatzeko
lantaldea osatzeko lehen bilera.
13:00etan, udaletxean.

IRURTZUN Ipuin kontalaria.

Nire hegoak eta biok ipuin
kontalariaren saioa, euskaraz,
Irurtzungo Emakume Taldearen XXXI.
Emakumeari buruzko jardunaldien
barruan, Pikuxarrek antolatuta.
18:00etan, Pikuxarreko ganbaran.

ALTSASU Gazte agenda.

Txapelketak.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Kontzertua.

Burundar Txistulariak taldearen *Lau urte*
eta gero hau! Kontzertuaren emanaldia.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ZINEMA

ALTSASU

¡ORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Sala de profesores
gaurkotasunezko filmaren
emanaldia.

Igandea 17: 19:30
Astelehena 18: 19:00

Secretos de un escándalo
gaurkotasunezko filmaren
emanaldia.

Osteguna 21: 19:00

¡ORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Hotel Royal zineforum filmaren
emanaldia.

Osteguna 21: 19:00

IRURTZUN Afaria eta antzerkia.

Afaria eta *Alderantzizko leiñatila*
antzerkiaren emanaldia, Irurtzungo
Emakume Taldearen XXXI. Emakumeari
buruzko jardunaldien barruan.
21:30ean, Pikuxarren.

IGANDEA 17

IRURTZUN Mendi irteera.

Sakanako Mendizaleak taldearen
irteera: Ataun Lazkaomendi, 15,12
kilometroko ibilaldia. 606 metro
aldapan gora, 522 metro gain
beheran. Bazkari Itxurtean jatetxean.
07:00etan, Iratxotik.

LAKUNTZAN Mendi irteera.

Altsasuko Mendigoizaleak taldearen
mendi irteera: Aralar.
09:15ean, Guardetxean.

ETXARRI ARANATZ Antzerkia.

Onin eta antzerkiaren misterioa
famiarteko antzerkiaren emanaldia.
17:30ean, kultur etxean.

ASTELEHENA 18

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen
Mugimenduaren Pentsio duinen
aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEARTEA 19

IRURTZUN Solasaldia.**ETXARRI ARANATZ**

Defendatzaileak, eraldatzen
duten emakumeak erakusketa.
Martxoaren 18ra arte.
Liburutegian.



ALTSASU Sorioneku! Euskal
Eskultura 2.100 urte, Euskal
Herriko Eskultoreen Elkartearen
erakusketa.

Otsailaren 20tik martxoaren 20ra.
Iortia kultur guneko erakusketa
aretoan.



IRURTZUN. Irurtzungo pintura
tailerraren Emakumearen
egunaren harirako erakusketa.
Martxoaren 31ra arte. Tahonan eta
Pikuxarren.

Ignacio Lloret *Nosotros como esperanza*
liburuaren egilearekin solasaldia.
18:00etan, liburutegian.

ASTEAZKENA 20

LAKUNTZA Batzarra.

Energia berriztagarrien komunitatea
sortzeko VIII. bilera.
18:30ean, Sakanako
Mankomunitateko egoitzan.

ALTSASU Solasaldia.

Arantxa Urretabizkaia idazlearen
Azken etxea solasaldia, Sakanako
Mankomunitateak, Baztango Udalak,
Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak eta Nafarroako
Iparaldeko Euskara
Mankomunitateak antolatutako
Literatura Geraldak programaren eta
Altsasuko Udaleko Berdintasun
zerbitzuak Martxoaren 8aren harira
antolatutako *Isilarazi matxismoa*
egitarauaren barruan.
18:30ean, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 21

ALTSASU Ikastaroa.

LAB sindikatuaren Langile migratuen
eskubideei buruzko prestakuntza.
18:00etan, Gure Etxean.

OSTIRALA 22

ALTSASU Aurkezpena.

Sakanako Gazte Koordinadora
Sozialistaren Sakanako Laneko
Autodefentsa Sarearen aurkezpena.
18:00etan, Gure Etxean.

IRURTZUN Proiektzioa eta solasaldia.

Into the ice Hego Amerikako Sarwin
mendikatea esploratzen proiektzioa
eta solasaldia Eñaut Izagirre
Estibaritzekin. Sarrera moduan 20
minutuko diapositiba proiektzioa
izanen da. Elebiz. Sarrerak: 2 euro.
19:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Kontzertuak.

Streetwise, Arene 6 eta Aukera
Okerra taldeen kontzertuak. Sarrerak:
9 euro.
Ate irekiera, 21:00etan;
gaztetxean.

LAKUNTZA Kontzertua.

Los del Rayo taldearen kontzertua.
22:00etan, Sorginak tabernan.

Erviti aluminio
PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren
berriztatze eta birgaitzea

ESKELA

**Jose Luis Flores Berastegi**

Martxoaren 7an hil zen 87 urte zituela

Goikoitxeko familiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, modu batera edo bestera, ondoan egon zareten guztioi, baita Aita Barandiaran zahar-etxeko langileei ere.

Arbizun, 2024ko martxoaren 7an

OROIGARRIA

**Fran Balda Araña**

III. urteurrena

Gure artean ziñen,
gure artean zaude
eta gure artean egongo zara
EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO!

Itxekuek
Arbizun, 2024ko martxoaren 13an



OROIGARRIA

**Salvador Lopez de Zubiria Goikoetxea**

VII. urteurrena

Oihal beltzean klarion zuriz
izarra marraztu dut.

Maite zaitugu

Etxekoak

OROIGARRIA

**Juana Aiestaran Zelaia**

I. urteurrena

"Segi zaintzen zauden lekutik"

Haren aldeko urteurren meza, igandean, hilak 17, goizeko 11:00etan Urdiaingo Jasokunde ama elizan egingo da.

Etxekoak

JAIOTZAK

- **Jare Zeberio Lopez de Goikoetxea**, otsailaren 29an Urdiainen
- **Muhammad Brahim Laulad**, martxoaren 7an Altsasun
- **Yichen Pan**, martxoaren 8an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

HERIOTZAK

- **Amparo Martinez Bengoetxea**, martxoaren 6an Ziordian
- **Jose Luis Flores Berastegi**, martxoaren 7an Arbizun

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGAI

Pisua bajearekin salgai: Etxarri Aranazko Santakitz kalean. Interesatuak deitu 669 156 117 telefonora.

LEHIAKETA

'Erdialde' euskarazko idazlan laburren 17. lehiaketa: 6 urtetik gorako haurrei zuzendua, maila ezberdinetan banatuta egongo da lehiaketa, maila bakoitzeko 3 sari. Lanak aurkezteko epea 2024ko apirilaren 30an amaitzen da Miranda de Argako Tudelana kaleko 3. zbkiko egoitzan edo erdialde.euskararenlagunak@gmail.com posta elektronikora idatziz. Oinarriak <http://euskararenlagunak.wordpress.com> antolatzaileen helbidean. Sariak 2024ko maiatzaren 18an banatuko dira, Miranda de Argan izanen den *Euskararen eguna* ospakizunean. Irabazleei alde zuzenetik aurretik abisatuko zaie.

OHARRAK

Odol emateak Lakuntzan: Martxoaren 20ean,

17:00etatik 21:00etara udaletxeko gela grisean.

Sakanako Mintzakide taldeak: Altsasun astelehenean 10:00etan liburuetan, ostegunetan 20:00etan Lezea tabernan eta ostiraletan 9:00etan Kaixo tabernan, Ziordian ostiraletan, 17:00etan liburuetan, Etxarri Aranazten ostiraletan 19:00etan Xapatero tabernan, Arbizun asteartean 16:30ean kirodegiko tabernan, Lakuntzan asteazkenetan 18:15ean jubilatuta elkartean eta Irurtzunen astelehenean 19:00etan Xapatero tabernan, 18:30ean Iratxo tabernan, ostegunetan 9:00etan Pikuxarren eta ostiraletan 19:00etan Pikuxarren ere. Parte hartzeko deitu 600 482 024 telefonora.

Lakuntzako Udalaren informazioa jasotzeko WhatsApp kanal berria: WhatsApp aplikazioaren bitartez herrian barna dauden iragarki tauleta abarren informazioa jasotzeko da hedapen zerrendaren bitartez. Gogoratu deitu ez dela udalarekin harremanetan jartzeko kanala izango eta ez direla mezuak erantzungo.

informazioa jasotzeko bakarrik izango da. Horretarako 672 778 598 telefono zenbakia zure kontaktuen agendan gorde beharko duzu eta ALTA hitza bidali WhatsApp bidez berriak jasotzen hasteko. Emandako datuen tratamenduaren arduraduna Lakuntzako Udala izango dela gogoratu du.

SOS GAZA. Gernika-Palestina herri ekimenak Yala Nafarroa plataformarekin batera Elkartasun Aktiboa inizatiba martxan jarri du: Netanyahu nazioarteko epaileen aurrean eramateko, Gazan elkartasuna proiektuak bultzatzeko Mundubat GKE-ren bitartez eta Palestina leku guztietan ikusarazteko. Ekarpeneko ekonomiko egiteko, Nafarroa ES36 3035 0083 2808 3014 0037 kontu korrantearen dirua sar dezakezu, edo zure banketxearen aplikazioaren bitartez BIZUM EMN/DONAR atalean Mundubat Fundazioa bilatu eta 08737 kodea erabili dirua eman.

Paxi Bisquertzen 'Ombuaren itzala' filma bukatzeko diru ekarpenak: Otaño bertsoari-poetaren bizitza eta obrari buruzko filma bukatzeko diru ekarpenak egitera animatzen zaituztegu: <https://www.verkami.com/projects/37275-ombuaren-itzala> webgunearen bitartez egin daitezke edo egilearekin harremanetan jarri eta kontu korrantearen zenbakia helaraziko dizue: pmirenbisquert@hotmail.es emailera idatziz edo 687 841 313 telefonora deituz. Proiektuari buruzko informazio gehiago: <https://pellomario-anoauzolana.eus/webgunea>.

Olazitiko Udaren Euskaraz Kanpainarako izen emate zabaliak: Martxoaren 15era arte izena eman daiteke 948 012 012 telefonora deituz. Udako aisialdi eskaintza ekainaren 24tik uztailaren 18ra izanen da, D eta B ereduak ikasten duten HH eta LH ikasleentzat. Matrikularen tasak eta deialdi buruzko informazio

gehiago www.olazti.eus/webgunea.

UEMA udalekuekin izen emateko epea zabalik: *Gazteendako salto!* Udaleku ibiltariak Arantz, Elizondo, Doneztebe eta Oronoz-Mugairitik pasatuko dira, herri bakoitzean bi gau pasatuko direlarik. Bi txanda daude garagarilaren 24tik garilaren 2ra eta garilaren 4tik 12ra. 2006 eta 2009 urteen artean jaiotako gazteei zuzenduta, matrikulak 150 euro balio du. Izen emateko epea martxoaren 31an amaitzen da. Informazio gehiago eta matrikulazioa www.uema.eus web orrian, 943 816 699 telefonora deituz edota administrazioa@uema.eus emailera idatziz.

Bertso Udalekuekin gaztetxoendako izen emate epea zabalik: Apirilaren 17ra arte izena eman daiteke. Argibide gehiago (Txandak, taldeak...) www.bertsozale.eus web orrian, 943 694 129 zenbakira deituz edota aisialdia@bertsozale.eus helbidera idatziz. **Sakanako Etxera eguneko bazkarirako txar-**

telak salgai: Sarek antolatutako Etxera eguna Etxarri Aranazten egingo da, apirilaren 6an. Bazkarirako txartelak Xapatero eta Leku Ona tabernetan salgai 20 eurotan. Bazkaria plazan izango da, 15:00etan.

Elkartasun bilketa martxan: Etxean soberan eta egoera onean dituzun arropa eta bestelakoei Elkartasunezko bigarren aukera eman! Ostiralero, apirilaren 5era arte, 11:00etatik 13:00etara Altsasuko Erkuden kaleko 8. zbkian (lehenengo SD Altsasu taberna zen lokalean) baita Altsasuko BHI institutuan ere, 8:15etik 14:15era jasoko dizkizute eraman dituzun gauzak. Jasotako guztiarekin antolatzaileek (Sakana Harrera Haranak eta Mank-eko Anitzartean zerbitzuak) Elkartasun azoka egingen dute apirilaren 14an. Informazio gehiago 648 070 710 telefonora deituz edo anitzartean@sakana-mank.eus e-postara helbidera idatziz.

iragarki@guaxe.eus
www.iragarkilaburak.eus

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75edo eskelak@guaxe.eus

► Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€

prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



Juanjo Abaurrea, ezkerren, Sorioneku! erakusketaren barruan egindako haurrendako tailerlean. IORTIA

Irulegiko eskuaren hamaika eskultura

Eskuahaldunak, Euskal Herriko eskultoreen elkartearen 'Sorioneku! Euskal eskultura 2.100 urte' erakusketa martxoaren 20ra arte ikusgai dago lortia kultur gunean. 50 bat eskultorek Irulegiko eskuaren haien bertsoak egin dituzte

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU
Sorioneku! Euskara eta Euskal Kulturaren 2.100 urte erakusketa ikusgai dago martxoaren 20ra arte, Iortia kultur guneko erakusketa gelan. Otsailaren 20an mustu zuen Eskuahaldunak, Euskal Herriko Eskultoreen Elkarteak. 50 bat eskultorek Irulegiko eskua oinarri egindako artelanak ikus

daitezke erakusketa, guztira 70 bat lan, Luisa Aldaburu eskultorea eta elkarteko kideak azaldu bezala. Otsailaren 27an haurrendako tailerra egin zuten ere, eta parte hartzaileek eskuak egin ez ezik, bisita gidatua egin zuten erakusketan zehar. Aldabururendako artista eta ikusleen arteko harreman hori oso garrantzitsua da ere.

Eskuari omenaldi bat dela esan du Aldaburuk. "Eskuak gizarte eta euskal identitate bezala zeresan handia piztu du, eta horri garrantzia eman nahi genion". Eskuahaldunak elkartearen horren bueltan bildu zen eta haiei ere "inporta" zaiela erakutsi nahi zuten. Erakusketa ibiltaria da, eta aurretik Iruñean, Ilundainen

eta Mutiloan egon da, eta eskultore elkartearen asmoa "mugitzen jarraitzea" da. "Aranzadik Irulegiko eskuaren eta gainerako aztarnen berri eman zuenean, fokua esku horretan jarri zen bertan soineku edo sorioneke idatzita zuelako eta horrek jakinmin handia eta teoria asko piztu zituen. Baina guk sortzaile eta euskaldun bezala beharra ikusi genuen aipamen bat egiteko". Aurkikuntza garrantzitsu horretan ere sortzaileen "ahotsak" jartzeko: "Gure egitearekin lotzeko". Hortik dator martxoaren 20ra arte ikusgai dagoen *Sorioneku! Euskara eta Euskal Kulturaren 2.100 urte* erakusketa.

Aurkikuntza

Irulegiko eskua azaldu izana eta "euskara zaharrea" idatzia egoitea garrantzitsua dela aipatu du Aldaburuk. "Ez dakigu oso ongi esanahia, ez da hain garrantzitsua jaungoiko bat izan edo zer. Ohartzen gara euskaldunak egunerokotasunean hitz horiek ditugula: zorion, zorioneko... Hortik joan behar da gauza". Gainera, brontze aroko errituekin eta sineskeriekin lotura dutela esan dute ere ikertzaileek: "Atean jartzen zen saria bezala".

"Garai batean dena eskuz egiten zen, eta gu eskugileak gara, eskuahaldunak, eta ez dugu galdu eskuz egitearen grina hori". Sortzaileek haien eguneroko bizi artistikoan lanetan "ametsak, pentsaerak eta hainbat gauza"

bulkatzen dituztela azaldu du eskultoreak. "Eta nola ez bat egin brontze garaian sortzaileek egin zuten horrekin".

Artista bakoitzak bere egin du aurkikuntza. "Bakoitzak bere erara ulertu du". Identitatearekin edo izatearekin zerikusia duela azaldu du Aldaburuk: "Guk tinko jarraitzen dugu, Guillermo Olmok esaten duen bezala, gu erresistentzia gara; euskaldunon egunerokotasuna hori da, zer zaila dugun euskalduna izatea hain kontrako inguruan".

Guillermo Olmo izan zen Euskal Herriko eskultoreak biltzeko ideia izan zuena. Berak urtero Mikel Zeberiorekin batera Azken muga deitutako kultur jaialdia antolatzen du. Besteak beste, lehiaketak, bertso saioak eta abar izaten dira, eta garrantzia handia ematen die naturan jartzen diren eskultorei: "Guillermok ulertzen du eskultura dela artea egitearen ardatza". Duela pare bat urte eskultura lantzen zutenak biltzeko saioak egin zuen, eta jaialdian erakusketa egin zuen, ondoren ibiltaria bihurtu zena. "Baina formalki antolatu behar ginen: Eskuahaldunak".

"GARAI BATEAN DENA ESKUZ EGITEN ZEN, ETA GU ESKUGILEAK GARA, EZ DUGU HORI GALDU"

23.korrika
HARRO HERRI

OSTIRALA 15

IRURTZUN Korrika Txikia.
Goizean, plazan.

LAKUNTZA Aurkezpena eta Korrika txikia.
Korrika eleantza aurkezpen ekitaldia, Lakuntzako bertso eskolaren saioa, erraldoiak eta Korrika Txikia herriatik zehar. Ondoren, merendua.
18:00etan, plazan.

BAKAIKU Pintxopotea.
Nerepe bakarlarriak girotutako pintxopotea. Ondoren, Azterketak euskaraz elkartasun argazkia.
19:00etan, elkartean.

ALTSASU Korrika Txikia.
12:15ean, Foru plazan.

LARUNBATA 16

LAKUNTZA Zinea euskaraz.
17:00etan, kultur etxean.

URDIAIN Korrika afaria.
22:00etan, Aitziber elkartean.

IGANDEA 17

IHABAR Korrika Txikia.
12:00 Haurrendako tailerrak.
13:00 Korrika pintxo potea etxetik eramandako pintxoekin.
Dastatutako pintxo artean Arakilgo pintxo lehiaketara eramanez duten pintxoak aukeratu dute.

14:30 Paella jatea.
Arratsaldean, Korrika txikia.

BAKAIKU Korrika Txikia.
16:00 Peto margoketa, elkartean.
17:00 Korrika Txikia Bakaikutik Iturmendiraino.

ASTELEHENA 18

IRURTZUN Tramankuluen jolasak.
17:00etatik 19:00etara, Foru plazan.

ASTEAZKENA 20

LAKUNTZA Mintzakide.
Mintzakide taldearen bilkura (asteazkenero).
18:00etan, Gure Nahia elkartean.

23.korrika
HARRO HERRI

BIDALI KORRIKAKO ZURE ARGAZKIAK

@GUAIXE
618 882 675



Arantxa Urretabizkaia 'Azken etxea' liburuaren aurkezpenean. KULTUR SHAREA

Literatur geraldia

Sakanako Mank-ek, Baztango Udalak, eta Bortzirietako eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateek antolatuta, hiru solasaldi izanen dira Sakanan: martxoaren 20an, 18:30ean, Altsasuko Iortian, Arantxa Urretabizkaia *Azken etxea*; apirilaren 22an, 19:00etan, Etxarriko liburutegian, Xabier Mendiguren eta Jon Arratibel *Xafan-en Oso latza izan da* aurkezpen-solasaldia, eta apirilaren 26an, 19:00etan, Uharteko udaletxean, Miren Agur Meaberen *Itzulerak*.

Eneida C. M. eta E. R. B. ALTSASU

Altsasura garraio publikoan eta "ikastera" etorriko dela esan du Arantxa Urretabizkaia idazleak. Martxoaren 20an, asteartean, 18:30ean, izanen da Iortia kultur gunean, Sakanako Mankomunitateak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Baztango Udalak eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak beste urte batez antolatutako Literatura Geraldia programaren barruan. *Azken etxea* bosgarren eleberriarren inguruko literatura solasaldia egingen du idazleak: "Nik irakasteko gutxi daukat eta ikasteko pila bat, eta zahartzaroak daukan abantaila, agian nagusia, ikasteko denbora gehiago dugula da. Zertxobait ikasten badut, pozik sentituko naiz".

Azken etxea

Denbora zeraman zer idatzi ez zekiela, eta lagun bati beste lagun bati buruz galdetu zionean sortu zitzaion Urretabizkaia *Azken etxea* eleberriarren ideia: "Esan zidan bere azken etxearen bila ari zela eta txinparta bat sortu zen, pentsatu nuen niri ez zitzaidala sekula bururatu modu pertsonalean azken etxea zein izango nuen edo antzeko ezer". Literaturak intuiziotik arrazoitik baino gehiago duela esan du idazleak, "eta nonbait burmuinean horren inguruan nituen gauza batzuk bildu ziren eta horrela gertatu zen".

Protagonistak zahartzaroan dauden emakumeak dira. "Au-

Zahartzaro modu berriak

Arantxa Urretabizkaia *'Azken etxea'* eleberriko protagonistak zahartzaroan dauden eta arruntak izan ez diren bizimoduak izan dituzten emakumeak dira. Martxoaren 20an, asteartean, liburuaren inguruko solasaldia egingen du, Iortia kultur gunean

keratu ditudan emakumeak ez dira emakume arruntak. Propio eginga dago". Zaharra hitza erabiltzen du Urretabizkaia emakume hauek deskribatzeko: "Egizu kontu: haurtzaroan dagoena haurra da; gaztaroan dagoena gazte; helduaroan dagoena heldua. Zahartzaroan ez da horrela. Lehenengo letra horiek aldatu egin behar dira. Badakit zergatik gertatzen den, baina horren kontra nago. Ni zaharra naiz eta ez naiz horretaz lotsatzen. Zergatik lotsatu behar dut?". Bizitzaren beste etapa bat da.

**"LAGUN BATI BURUZ
BESTE LAGUN BATI
GALDETU NIONEAN
SORTU ZITZAIAN
ELEBERRIRAKO IDEIA"**

"Emakume hauek ez dute bizitza arrunta izan eta bukaera arte ez dute bizimodu arrunta eramango. Ez dut horrela adierazi nahi". Zahartzeko modu "tradizionala" ia guztiz desagertu dela azaldu du idazleak: "Oraingo egoeran oraindik ez daukagu zahartzaro edo zahartzeko modua guztiz osatua. Arrastoak daude han edo hemen". Gaur egun zahartzaroak duen eta aurreko zahartzaroak ez zuena da nola zahartu nahi den aukeratu ahal dela: "Nork bere ahalmenekin. Denok ez ditugu ahalmen fisiko berdinak. Baina aukeratu dezakegu, eta hori nobedadea da".

Azken etxea ez da eleberru autobiografikoa. "Nire protagonista nagusia aberatsa da, eta ni ez. Hortik hasi eta beste guztiarekin jarraitu". Idazleak azaldu duenez "behin bakarrik" kontatu izan du

bere esperientziaren bat liburu batean, *Zuri-beltzeko argazkiak*en, hain zuzen. "Askoz interesgarriagoak ikusten ditut inguruan dauden bizitzak nirea baino".

Elkarrizketek pisu handia dute *Azken etxean*. Urretabizkaia zenbaitetan aipatu duenez, literaturak nahi duena egiteko lekua eta esparrua ematen dio, eta horietarako elkarrizketak baliatzen ditu. "Bada denbora dezent horrekin interesatuta nagoela; nola islatu eleberru batean protagonistek edo pertsonaiek elkarrekin elkartrukatzeko dituzten hitzak". Normalean marratxo

**"NIK IRAKASTEKO
GUTXI DAUKAT ETA
IKASTEKO PILA BAT;
ALTSASURA
IKASTERA NOA"**

batekin islatzen da, baina idazleak uste du ez dela modu naturala. "Nik orain elkarrizketa hau bukatu (BELEIXE IRRATIAN Eneida Carreñorekin izan duena) eta kontatuko banu ez nituzke marratxo horiek jarriko. Esango nuke: galdetu dit haur eta nik erantzun diot beste haur". Hori lantzen ahalegindu da *Azken etxea* eleberrian.

Itsasoa

Eleberriko azken etxe hori itsasoan dago: "Ez diot nire buruari zergatia galdetzen ia inoiz, are gutxiago literaturan". Itsasoa itsasertzean bizi ez direnendako "idilikoagoa" izan daitekeela esan du Urretabizkaia. "Oso gauza naturala da. Itsasoak beti du zer bait berezia". Hala ere, Madrilen bizi zenean eta jendeak itsasoa falta zitzaioela esaten zuenean, "ez nuen oso ongi ulertzen zer esaten zuten" aitortu du. "Agian mendien artean egoteak itxi egiten zaitu, eta itsasoa ez da sekula ixten; amaigabea da".

"Ondo pasatzea eta tarteka hausnarketaren bat sortzea irakurlearen barruan". Haren liburuak irakurtzen dituztenek "nik idatzi dudana hori aberastea" nahi duela esan du Urretabizkaia: "Liburu bat ez dago bukatuta irakurleak bukatzen duen arte. Irakurle bakoitzak zentzu bat ematen dio, eta horiek gehitzen direnean eleberru osatzen da". Hori espero du.



'Mainamikirri' ipuin musikalean parte hartu duten musikari, aktore eta dantzariak. JOSE ANDRES IZA

Mainamikirri behingoz garaiz heldu zen

Sakanako ipuin musikatua sortzeko proiektua 2023an jarri zuen martxan Haize Berriak bandak, eta aurreko asteburuan oholtzaratu zuen: Mainamikirri. Altsasun eta Irurtzunen egindako emanaldiak arrakastatsuak izan ziren

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA Martxoaren 9an mustu zuen Sakanako Haize Berriak bandak *Mainamikirri* ipuin musikatua, Altsasuko Iortia kultur gunean. Bigarren emanaldia Irurtzungo frontoian egin zuten, hurrengo egunean. Ipuin musikala bat egiteko ideia, "orain dela asko" sortu zela esan du Olatz Garde bandako kideak, "baina Mainamikirriren inguruan zerbait egitearen erabakia 2022an hartu genuen". 2023an zehar proiektuari forma eman zioten, eta "azkenean" aurten gauzatu dute. "Beti saiatu gara erronka berriak proposatzen eta berri-tzen, eta Sakanan sortutako ipuin musikalaren ideia horren ildoan zihola iruditu zitzaigun". Bandaren helburuen artean Sakanako kultura propioa sustatzea da, "eta Mainamikirri pertsonaia oso interesagarria iruditu zitzaigun".

Herri ipuina

Banda Castillo Suarez idazle altsasuarrarekin harremanetan jarri zen, "hasieran ipuin bat enkargatzea zen gure asmoa, gero hari musika jartzeko". Baina zerbait elkarrizketen ondoren, Mainamikirriekin zerbait egiteko aukera aipatu zuen Suarezek, "eta oso ideia ona iruditu zitzaigun". Mainamikirri Altsasuko herri ipuin bat da. "Herriko ban-

dakide gehienek ezagutzen zuten, baina gainontzeko herrietakoek istorioa ezagutzeko modu berezia izan da proiektu hau". Dohain bereziak zituen emakume gazte bat zen Mainamikirri, lekuetara beti berandu iristen zena.

Hurrengo urratsa ipuina musikalizatzea zen, eta Margarita Lorenzo Reizabal Musikeneko Konposizio eta Zuzendaritza irakasleari obra enkargatzeko konpositoreak iradoki ziezaien eskatu zioten: "Anne Perez de Azpeitia Hamilton konpositorea aipatu zigun". Konpositoreari proiektuaz hitz egin zioten, eta "berehala" baietz esan zuen. Musika konposatzen hasteko konpositoreari ipuina bidali zioten, baina informazio garrantzitsuena gidoia izan dela esan dute bandatik. "David Sanchez Andion gure zuzendaria izan da ideiak eta beharrak komunikatzen joan zaizkiona, eta egia esan oso eraginkorra izan da beraien arteko komunikazioa".

"Burratu zitzaigun polita izango litzatekeela proiektuari dra-

"ANNE, EVA, CASTILLO, DANTZARIMA... DENAK EMAKUMEAK, SORTZAILEAK ETA ARTISTAK"

maturgia gehitzea. Tarima Beltza antzerki taldearekin eta Jon Barbarin zuzendariarekin elkarlanean aritzea pentsatu genuen, baina azkenean Eva Azpilikueta Martinezi proposatu genion". Altsasuko aktorea izanda, berarekin lan egitea "oso egokia" iruditu zitzaion: "Izugarritzko esperientzia eta profesionaltasun maila altua dauka, eta bagenekien energia eta presentzia handiko pertsona dela. Proiektua osatzeko behar genituen osagai guztiak". Azpilikueta izugarritzko lana egin duela goraipatu du Gardek, "ez da batere erraza arlo eta maila desberdinetan dabilen jendea koordinatzea, are gutxiago hain denbora gutxian". Muntai egiteko pare bat hilabete izan dute.

Azpilikueta Dantzarimarekin kolaboratzea iradoki zien, "eta pastelaren ginga izango zela iruditu zitzaigun". Dantza konpainiak egindako lana ere aipatzekoa dela esan dute bandatik: "Irantzu Gonzalezen koreografia diseinuz gain, eta taldekideen kasuan dantzatzeaz gain, aktore gisa ere ibili dira, eta oso ondo egin dute, gainera". Bandako kideak ere izan ziren aktore.

Kantak bi taldetan banatu daitzkeela azaldu dute: "Alde batetik, pertsonaiak aurkezten dituztenak eta, bestetik, gertaerak kontatzen

dituztenak. Esaterako, Mainamikirri, Kuxkuxeroak eta Erreginak haien motibo musikalak dauzkate, haien izaera eta egoera islatzen dutenak. Bestetik, zaldia lauhazka, herriko jendea berrien zain, garbitzaileak errekarra joaten, epaiketa eta abar". Perez de Azpeitiak sortutako musikarekin "oso pozik" daudela esan du Gardek: "Istorioak kontatzeko eta sentimenduak adierazteko musika daukan gaitasunaren primerako adibidea izan da".

Prozesu osoaren emaitza "oso polita eta magikoa" zela esan du Gardek, "baina ez genuen espero Altsasun 300 sarrerek hain azkar agortzea". Irurtzungo emanaldia frontoian izan zenez, antolakuntzak 200 pertsonendako toki mugatu zuten, "ikuskizuna denek ongi ikusteko", eta han ere ia bete zen. Jende askok aipatu du ezin izan

zela joan eta ea berriz eginen duten, "eta egia esan gustatuko litzateke beste emanaldi bat eskaintzea".

"Espektatibak altuak ziren, gauzak ondo egin nahi genituen, eta argi daukagu bete direla". Sentsazioa "erabat" positiboa izan dela esan du Gardek: "Haize Berriak bandako musikariaren artean izugarritzko ilusioa piztu du proiektu honek, errepikatze-ko gogoekin gelditu gara, eta hori ez da beti gertatzen...".

Emakume sortzaileak

"Anne, Eva, Dantzarima, Castillo... denak emakumeak, sortzaileak eta artistak". Bandan ere geroz eta emakume gehiago direla goraiatu du Gardek, "ia %50; eta hori lorpena da, kontuan hartuta emakumeak musika bandan sortzeko aukera oso berria dela".

BAZTERRETIK

IRATI EIZAGIRRE SAGASTIBELTZA

Martxoak 8



"Oso polita izan zen esaldiak sortu zuena"

Ahizpa arteko txantxa bat bezala hasi zena, Irurtzungo Zabaleta Harategiko dekorazio parte bihurtu da; Maider Zabaleta Arangoa harakinak erakuslehoan esaldiak idazten ditu. Bezeroak beste modu batera sartzen direla esan du

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

1 Noiztik duzue harategia?

Harategia aitak hartu zuen ez dakit zein urtetan, ni jaio aurretik nik uste. Gero gurasoek jarraitu zuten, eta anaia sartu zen ere. Anaia eta aita istripu batean hil ziren, eta harategian ama gelditu zen. Ni 18 urte bete nituenean hasi nintzen. Ez dakit zenbat urterekin utzi nuen eta 14 urtez umeak izan eta zaintzen egon naiz. Duela sei urte itzuli nintzen, bikotekidearekin.

2 Itzuli behar izan zenuen?

Horrela sortu zen. Maiatz, alaba txikiena, hiru urte bete behar zituen eta aldeketa bat behar genuela pentsatzen hasi ginen haurrak eskolan zeudelako. Harategia alokatuta egon zen, eta utzi behar zuen. Amak esan zidan utziko zuela eta esan nion agian buelta bat emango niola. Ama flipatzen: "Nola buelta bat? Zertan?". Xabi, bikotekidea, animatu zen. Berak ez zekien ezer haragitegiak; duela gutxi gogoratzen egon ginen ez zekiela ezer ez. Baina hasi zen.

3 Zuk ere egiten ikasi zenuen?

Bai. Oso txikia nintzenean oroitzen naizaitaren hanken artean



Maidar eta Xabi, Zabaleta harategiko harakinak, Maiatz alabarekin (ezkerrean).

nola egiten zuen begiratzen egoten nintzela. Betidanik bizi izan dut.

4 Noiz hasi zineten erakuslehoia apaintzen?

Ahizpak ondoan fruta denda bat dauka, eta arbel batean eskaintzak jartzen ditu. Askotan, ireki aurretik elkartzen gara, eta egun batean errotulagailuarekin etorri zen. Esan nion ea pintadaren bat egin behar zidan eta berak ea nahi nuen galdetu zidan. Jarri zuen, gaztelaniaz: "Hemen dago harakinik guapoena", gezi bat jarri zuen eta "hor fruta saltzaille xelebreena", eta aurrean Kati zegoen eta zerbait jarri zuen ere. Jendeak ikusi zuen eta barrez hasi zen. Xabi jeloskor jarri zen, eta beste bat jarri genuen esanez harakin gatzdun eta guapoena zegoela, edo horrelako zerbait. Oso polita izan zen sortu zuena. Handik gutxira pandemia izan zen, eta ikusten genuen barre egiteko beharra zegoela, eta ez genuen utzi.

5 Nondik hartzen dituzue esaldiak?

Batzuk guk sortutakoak dira eta beste batzuk hortik ikusten ditut eta jartzen ditut. Jendeak ere eskaini izan dit. Badago Pinceladas Conscientes deitutako artista bat, eta sareetan ikusi nuen esaldiak zituela, erosi nuen, eta hortik ere hartzen ditut. Beste behin lagun batek Whatsapeko egoeran esaldi bat jarri zuen, jartzeko baimena eskatu nion. Luzea zen eta Xabik esaten zuen luzeegia zela, baina jendea irakurtzen gelditzen zen. Pandemian ezin zenez barruan jende asko sartu, kanpoan irakurtzen egoten zen eta tarteka komentatzen zuten.

6 Bakarrik esaldiak jartzen dituzue?

Marrazkiak egitera ez gara auzartu; eta esaldiak jartzeko ahizpa etortzen da. Nik oso letra txa-

rra dut. Bestela ama egoten da ere. 78 urte ditu eta eskaileretan igota egoten da, eta bitxia izaten da. Egia da ere errazago egiten zaidala gaztelaniaz jartzea. Askotan galdetzen didate ea euskaraz zergatik ez, baina lortzen ditudan gaztelaniaz dira.

7 Anekdotarik?

Orain dagoen esaldiarekin beste egunean filosofatzen hasi ginen bezero batekin. Beste batean abesti baten zatitxo bat jarri nuen, argazkiak egiten dizkiet eta egoeran jarri, eta lagun batek argazkia taldekoei bidali zien. Ez dakit noraino ailegatu zen.

8 Beraz, harrera ona izan dute?

Bai. Pandemia garaian esaterako jendea beldur zen, eta behintzat esaldia irakurri eta beste modu batean sartzen zen. Nik uste jendeak espero zituela; esan izan didate aspaldi ez dudala aldatu.

9 Zenbatero aldatzen duzue?

Orain dagoena gabonetatik dago. Zorionak eta abar ere jarri genituen, eta horiek bai ezabatu genituela. Boladak dira, badaude bolada batzuk inspiratuago nagoea, eta asko gustatzen bazait uzten dut.

10 Eragina izan dute?

Hori ez dakit. Baina Lacturaleko sareetan jarri zuten: "Gure harategiko lagunak esaldi polita jarri dute..."

11 Hurrengo pentsatu duzu?

Ez. Gure artean eztabaidak sortzen dira hau jarri edo bestea jarri. Azkenean urratsa nik ematen dudanez, niri gustatzen zaidana jartzen dut.

HARRO HERRI

euskaraz

gk

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436 - 948 564 275
info@gkomunikazioa.eus · Foru plaza, 23-1, Altsasu